




- **Miren Urbietta, sopranoa:** «Lepotik gorakoa ez ezik, gorputz osoko lana da kantua»
- **Arantxa Urretabizkaia:**
«Gizarte honek gorroto du zahartzaroa, eta horren errudun nagusia nire belaunaldia da»
- **Hizkuntz aniztasuna**
Nola erakarri etorkinak euskarara

**Argia Sariak 2011****AHT**

Lapurdin, egungo trenbidea modernizatzearen alde



**Garaiko errealitatean
kokatuko zaituen denboraren orratza**

Oparitu **Argia** harpidetza
independentzia astero ikusten da



Azaleko argazkiak:
WWW.URRUGNE.FR /
DANI BLANCO

Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera >



**gizarte
kutxa**
zugandik zuzana



• **NON ZER** •

2011ko otsailaren 6a, 2.263. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Xamar:** «Behin irabazi genuen bataila bat eta omena musulmanek eraman zuten». ARITZ GALARRAGA / 4

Editoriala

- Euskarazko hedabideak, beste jauzi baterako ordua. / 5

Asteko gaia

- **Lapurdin AHT ez.** Argudioen indarra. GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 6

Pertsonaia

- **Miren Urbietia:** «Kantuan teknika da gakoa, ahotsa erabiltzeko modu egokia». MIEL A. ELUSTONDO / 11

Gaiak

- **Martera bidaia.** Lurretik alde egiteko prestatzen. UNAI BREA / 17

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Biderkatuak eta handituak. ANA URKIZA / 20
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 21
- **Zipriztinak.** XABIER ETXANIZ ERLE / 22
- **Txandan** Txorizo-tortilla. AMATIÑO / 22
- **NAS** baten beharra. GORKA MORENO MARQUEZ / 23
- **Hiruko txikian** Oro da ETA. JOXEMARI OSTOLAZA / 23
- **Bertso berriak** Ametsen lengoian. ANE LABAKA MAYOZ / 24

Erdiko kaiera

- **Arantxa Urretabizkaia:** «Bizipoza ez da gazteen kontua bakarrik». MIKEL ASURMENDI / 25
- **Binetaz bineta** bidaiatuz. UXUA LARRETXE / 28
- **Liburuak** XABIER ETXANIZ ERLE / 30
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak** JON TORNER / 32
- **Abarrak** MIKEL GARCIA / 33
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 36
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 37
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

Termometroa

- **ARGIA Sariak 2011.** Alabastroak urrea balio du euskal komunikazioan. URKO APAOLAZA, IRATI SARASUA / 39
- **Immigrazioa Euskal Herrian.** Kohesio hizkuntza euskara izan dadin. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Kristauak juduei zuhaitzak landatzen beduinoen lurretan. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- Tribua hausnarrean. MIKEL IRIZAR / 50



“Behin irabazi genuen bataila bat eta omena musulmanek eraman zuten”

Xamar | Orhipean

“Zer moduz?” galdetuta, garbi du erantzuna.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Josu Santesteban

Ondo xamar, ezta?

Euskaldun xamar, erran nahi baita, nonbait hor...

Hor non?

Hortxe galdea, non ote gaude? Euskal Herrian ala Euskal Ezinean?

Hasi gara negarrez!

Sobera katolikoak garelakoz, “malkoen ibarrean” bizitzera kondenaturik. Jainkoaren nahia omen da eta Paradisua hil ondorean kokatu du. Interesa izanik, segi aintzina; helterakoan konta.

XXI. mendera, bederen, iritsi gara; zer gehiago nahi dugu!

Herri normal gisa iritsi, konparazione batera? Egunero gure burua justifikatu beharrean ibili gabe? Ez litzateke gaizki!

Ez eta nolaz iritsi garen jakitea ere...

Garaian garaikoari moldatuz, ohitura, teknika, tresna, bizimodu zahar guztiak aldatuz, garatuz, kopiatuz edota baztertuz. Ez gara historiaurreko ehiztari aizkoradun herri mantendu, zaila zena Europako pasaleku natural honetan.

Mestizajea ere euskaldunok asmatu genuen!

Ez dirudi, baina zerbait hobea edota interesgarriagoa ikusirik, hartu, kopiatu edo ebatsi egin dugu, ondoren gurera moldatzeko; kultur guzien bizi legea da. Gu aski arituak gara herri zahar-modernoak garelakoz.

Txapela eta trikitixa, behintzat, gure-gureak Historiaurretik!

Hala balitz! Errealitatean txapela —*chapel* frantses hitz zaharretik datorrena— XIX.aren bukaeran hasi zen zabaltzen. Trikitixa Italian asmatu zuten eta ez zen alboka —*al-buq* arabiar eletik datorrena— bezain nekagarria, gainera soinu ederragoa zuen.

Depresioak jota itzuliko naiz etxera.

Lasai motel, bizirik dauden kultur guztiek egin dute horrelakorik, bertzenaz hilik dauden seinalea da. Gu, oraindik, ez gaituzte historian lurperatu.

Ezta garaitu ere? Esan ezetz, mesedez.

Garaitu? Ez al duzu prentsa leitzen? Zer herrik ez gaitu historian zehar menperatu? Behin irabazi genuen bataila bat, Orreagan Karlomagnoren kontra, eta omena musulmanek eraman zuten.

Zerk desberdintzen gaitu hortaz gaintzekoengandik?

Zerk desberdintzen du espainol bat frantses batengandik? Baietz mintzoa izan? Eta gu, ez al gara Euskararen Herria? Euskara Jendea?

Eta gu konturatu gabe!

Ez, orain, “askatasunean” bizi garenez, mintzoa hautu libreka omen da, elebitasuna naturala. Gauza da ezin oroitzu nabilela noiz aukeratu nuen nik espainolez jakitea... ■

Euskarazko hedabideak, beste jauzi baterako ordua

EUSKARAZKO HEDABIDEEN historia jarraitu duenak, badaki azken 30 urteetako abaroan egin dela biderik emankorrena. Eta badaki denbora horretan emandako aurrerapausoa itzela dela. Gaur egun 400.000tik gora biztanlek kontsumitzen ditu euskarazko hedabideak, 2008ko Eusko Jaurlaritzaren ikerketa baten arabera.

Komunikazioa da gure ardatza, inguratzen gaituen mundua nola ikusten dugun kontatzea, ikusmolde eta euskarri anitzez. Elkarren lehian eta elkarren osagarri. Hori da lokaletik globalera egiten dugun ekarpen nagusia, hizkuntza, euskaraz egiten duguna. Harro gaude egindako bide horrekin, pozik egiten dugunarekin, euskal kulturaren isla eta hauspo gara, eta gure euskaltasunetik munduaren ikuskera ugari eskaintzen ditugu. Albistea eta informazioaren haritik, entretenimendutik, gertukotik, sakonetik, zientziatik...

Baina ez da nahiko, ibilbide horretan sakondu behar dugu, orain artekoa hobetuz eta zabalduz. Hitzun komunitateak bere burua euskaraz islatua ikusteko eskubideaz ari gara, beharraz, nahiaz. Edozelako gizarte modernoren orainean, edozein kulturaren geroan, giltzarri da hedabideen zeregina. Ez da hau ukatuko duenik eta hala ebazten da behin eta berriz erakunde publiko eta alderdi politiko gehienen euskarari buruzko gogoeta eta plan estrategikoetan. Printzipio eta helburutan letra larriz aitortzen dute garrantzi hori, baina sostengu ekonomikoan ez, ez behintzat hedabide ez publikoei dagokienez.

Ezagun da EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herrian oso egoera desberdinak bizi direla: Nafarroan eta Iparraldean erakundearen sostengua hutsala da; EAEn oso bestelakoa da, baina ez da nahikoa, aurrean ditugun erronkei begira eusteko adinakoa ez bederen.

Euskarazko hedabideok ohituta gaude zaïltasunean jarduten, gure hizkuntzaren izaera ez normalizatuak horretara bultzatzen gaitu, eta agian horrek ere laguntzen digu bizi

dugun krisiari aurre egiten. Baina egoera gorria da eta hainbatetan larria. Hedabide ugari ari dira ixten munduan, hedabide historikoak, ospetsuak, gureen aldean handi eta indartsuak... Eta guk ere enbataren erdian dihardugu. Publizitatea behera, salmentak ere bai, diru-laguntzak urritzeko joeran... Noiz arte eutsi ahal izango diogu?

Bankuen, autoen, altzari eta elektratresnen salbamendu garaian, guk ere sostengu sendoagoa aldarrikatzen dugu. Maiz aurpegiatu zaigu diru publikotik bizi garela, bai euskal kultura, bai euskarazko hedabideak, konplexua sortzeraino ere bai agian. Orain, oster, inoiz baino argiago ikusten da nola giltzarritzat jotzen diren esparru eta proiektuetan, erakunde publikoek dirutzak bideratzen dituzten, izan hauek eremu publiko edo pribatukoak.

Eta ekonomikoki ere sektore garrantzitsua da euskarazko hedabide ez publikoena: 600 langiletik gora ari gara bertan, hilerok soldata etxera eramanez eta euskal gizartearen abestutasunean gure alea jarritz.

Azken 30 urteetan ibilbide oparoa egin dugu, baina bada ordua beste jauzi bat emateko. Gure konpromisoa hemen dago, egunerokoan ikusgai. Eta instituzioen konpromiso sendoagoa ere egunerokoan ikusi nahi dugu. Herri erakunde publikoen sostengu eta babes handiagoa aldarrikatzera gatoz.

Gure gizartearen garapena ezin delako porlana eta azpiegitura handien garapenari lotu. Adibidez, Euskal Y tren proiektuaren kilometro bakar batek, erakunde publikoetatik euskarazko hedabide ez publiko guztietara lau urtetan bideratzen dena balio du. Errepide, trenbide edo eraikuntza handien zati txiki batek gure etorkizuna berma dezake. Euskarazko komunikazioak merezi du tamainako apustua eta euskal kulturak ere bai. ■

Editorial honekin bat egiten dute euskarazko 50 hedabidek.

Lapurdin AHT ez

Argudioen indarra

“AHT, zaldi garailea”, dio RENFE Espainiako tren sareak bere promozio iragarkian. Lapurdin amarru egitea leporatzen zaio zorioneko kabalari; lasterketa irabazteko, kopuruak faltsutzea.

GARBINE UBEDA GOIKOETXEA

DONIBANE LOHIZUNETIK Azkainerako bidea hartzen baduzu, nabarmena egingo zaizu aldarria. Bazter orotik helduko zaizu egunetik egunera ozenagotzen ari den mezuaren oihartzuna, eta lagun egingo dizu bidaia osoan: *LGV Non, AHT ez*.

Margo zuriz eta atzekoz aurrera idatzitako lerroak aurkituko dituzu errepidean; bide seinaleen itxurako panelak, bidearen albo banatan; plastikozko banderola errepikakor berde-beltzak, han-hemenka, paretetan, langetan, zuhaitzik zuhaitz zeharka lotuta... Eta denek galtzen dute ikusgarritasuna, jada Azkain parean, Larrun mendi enblematikoaren magalean sasiz eginiko lelo erraldoiak errepideari arreta galtzeraino erakartzen zaituenean: *LGV Non, AHT ez*. Oraingoan, alimalekoa.

Paisaiak hunkitu egiten du, barneratu egiten zaitu, xede honen aurka daudenek darabilten argudio kalifikatzaile bakoitzak bere egiten gaituen bezala: lurren suntsitzailea, bertakoezikiko errespeturik gabekoa, diruxahutzailea, gezurraren eta amarruen gainean eraikia, bereziki krisi garaiotan adar jotze konpletoaren itxura hartzen duena...

Eta txikikeria badirudi ere, zuzen dezagun, badaezpada, euskarazko leloa, *AHT ez* delakoa, alegia. Lapurtarrek ez baitiote tren lasterrari muzin egiten. Eguno tenbidetik pasatuko balitz, ados baileudeke oro har.



“Ez AHT, LGV non”, Larrun mendiaren magalean. Azkaindik hartutako panoramika.

Haserrea, tren mota honi zabaldu nahi zaion bide berriak sorrarazi badu, *Abiadura Handiko Trenbide Berriari ez*, beharko luke. “AHTB ez”, “AHT ez”-en ordezt. Tira, antzeko zerbait.


Ez dira pasako...

“...Hemendik ez behinik behin”. Urruñan entzun nuen, aspaldiko partez. Abenduaren 11ko manifestazio jendetsua iragan eta berehala izan zen, astearte buruzuri eta izoztu batean –zero gradutik gora nekez egin zuen termometroak–, ehunka lagunek eta hogeitaka traktorek Ibardinera doan bide bazterrean bat egin genuenean. Fundasol enpresari bidea galaraztea zen helburua, Frantziako Trenbide Sarearen aginduz egin beharreko ikuskapena,

Kronologia

2006. Hego-Mendebaldeko Egitasmo Handiak erakundeak AHTren inguruko ikerketa jarri zuen abian.

2007ko martxoa. Tren lasterraren bide berria Landetako ekialdetik (eta ondorioz Lapurditik) pasatzea erabaki zuen Frantziako Gobernuak.



2009ko otsaila. Prefetak balizko ibilbide berriaren korridorea aurkeztu zuen; trena Mugerretik sartuko litzateke Lapurdira eta Milafranga, Hiriburu, Uztaritze, Azkaine, Senpere, Ziburu, Urruña eta Biriatu herriak zeharkatuko lituzke. Geltokiaren kokagunerik ez zen zehaztu.

2009ko ekaina. Lehuntze, Milafranga eta Hiriburuk ezezkoa eman zioten tren lasterraren bide berriari, Europako bozen kariatara antolatutako erreferendumean. Urtebete lehenago Mugerren eta Uztaritzen egindako galdeketa ere, hiru hautesletik bi egitasmoaren aurka azaldu ziren.

2009ko iraila. Ipar Euskal Herriko 29 udalerrik eskatuta, Citec enpresa suitzarrak ikerketa independentea egin zuen, eta

ondorioztatu, 50 urtean ez dela saturazio arriskurik izanen Lapurdiko egungo trenbidean.

Oraingo bideak hobetuta, 240 merkantzia trenek eta beste 80 bidaiari-trenek zeharka dezakete lurraldea egunean bi norantzetan. Saturazioa saihesteko, kalkuluek ahalmen teorikoaren %80a hartu zuen enpresa independente honek kontuan, eta baita gaueko lau orduko gelditzea ere.

2009ko urria. Manifestazio jendetsua Baionan. Antolatzaileen arabera, 12.000 lagun bildu ziren.



2010eko urtarrila. Lapurdik eta Gipuzkoak bat egin zuten AHT xedeari ezezkoa emateko. 15.000 lagun bildu ziren Irun eta Hendaian. 40 talde inguruk Hendaiaiko Gutuna deitu deklarazio bateratua sinatu zuten.

2010eko martxoa. Baterak egindako galdeketa baliatuz, AHT egitasmoak zeharkatu nahi dituen bederatzi herrietan iritzia eskatu zuen CADEk: bozen %90 xedearen aurka azaldu zen.

2010eko maiatza. AHT bide berrien kontrako elkarteek Hendaiaiko Gutuna eman zioten eskura Europako parlamentuko presidenteari.

2010eko ekaina. Garraio Transeuroparren Sarearen Konferentziaren kariatara, Dominique Bussereau garraioaz arduratzen den Frantziako idazkariak, José López Blanco Espainiako Garapene ministroak eta Antonio Mendonça Portugaleko Garraio ministroak Europako Hego-Mendebaldeko Ardatz Lasterraren gaineko asmo adierazpena sinatu zuten Zaragozan. Besteak beste, AHTren mugaz gaindiko sekzioak hobeto koordinatzea du helburu akordio honek.



2010eko azaroa. Akitaniako prefetak zundaketak egiteko agindua igorri zuen.

2010eko abendua. 15.000 manifestari (poliziaren arabera 5.300) eta 130 traktore bildu ziren Baionan, "Xahutzei ez! Oraingo bidea berritzei bai!" lelopean. Errobi, Hego Lapurdi eta Errobi-Aturri herri elkargoetako hautesleek segida eman zioten CADEren deialdiari. Jean Grenet Baionako auzapez eta Frantziako diputatuak manifestazioaren ibilbidea aldatzeko eskatu zion prefetari. Ez zuen lortu.

edo zundaketa, edo dena delakoa, eragozteak.

"Ez dira pasako, hau ez da Hegoaldea", gogorarazi zidan Ixabel Etxeberria hautetsi abertzaleak, "hemen ez dute hango nagusikeria erakusten ahal". Nafarroako autobidea eraikitzen ari ziren garaia ekarri genituen gogora, eta Gipuzkoako AHTren lanak, bertan ari diren langileen prekarietatea, gertatu berri zen istripua, heriotza... Pantxoa Tellier

CADE Ingurumenaren aldeko taldeko kideak aurrerago azalduko ziguna komentatzen ari ziren ondoko taldean: zundaketa egiteko prozedura legez kanpokoa zela, teknikariek dakarten agiriak ez diela tresna astunak sartzeko edota lurra 60 metroko sakoneran zultzeko eskubiderik ematen.

Manifestazio arrakastatsuen osteko euforia baino gehiago, tinko segitu beharra



Bizi!

zen han arnasten zena. Gauzak aldrebestu zitezkeela jakinda ere –beste zundaketetan ikusi denez–, gogotik eutsi beharra. “Ez naiz desobedientziaren aldeko” argitu zuen Odile de Coral Urruñako auzapez andreak, publikoki mintzatu ez bazen ere, “baina herria defendatu beharra dut...”, eskua xingola gorri-zuri-urdinaren korapiloan pausatua zuela.

Bizi!
mugimenduak
6 metroko
banderola hau
ipini zuen
Baionako herriko
etxeko teilatutik
zintzilik, 2010eko
azaroan.

Itxaronaldiak luze jo zuen –bisitariak ez ziren azkenik heldu–, eta bitartean, Michelle Alliot-Marie Frantziako ministro eta Donibane Lohizuneko zinegotziari ere heldu zitzaion erreparorako garaia. Bakarren batek, zinis-moz, edo itxaropenez, edo bien nahasketaz, “hura bederen gure alde dugu” bota zuen, 2009ko maiatzean Lapurdiko zatia gelditzeko eskaria egin zuela gogoratuz. Dominique Bussereau orduko Garraio estatu idazkariarekin batera egindako deklarazio polemiko hura zabalago azaldu zion Goizeder Tabernari, *Le Journal*-erako, gerora:

“Hemengo biztanle eta hautetsi asko beza-la, Bordele-Dax-Gasteiz-Madril abiada bizian lotzearen aldekoa naiz. Beti esan dut. Zalan-tza bigarren bide horren gainekoa da, Euskal Herriko lur biziki sentsibleak zeharkatzea ezinbestekoa ote den edo ez (...) Hemen urtetan eman dizkiguten argudioak lausoak eta kontraesnakorak izan dira (...) Egungo bidea hemendik hogeitaz urtera saturatu arte ez da bigarren bide horren beharrik sumatuko. RFFk esana da. Eta, izatekotan, epe hori baino lehen ezinbesteko izango ez bada, ez da beharrezkoa ikerketekin gaur jarraitzea. Horixe ondorioztatu genuen. (...) Abiadura Handiko lotunea egungo trenbideetan egin daiteke, hainbat egokitzapenen ostean”.

Xedearen gaineko hainbat datu, kopurutan

29.000.000.000 euro

RFF Frantziako Trenbide Sareak zorretan duen diru-kopurua.

5.000 euro ordaindu beharko du etxe bakoitzak zergatan, ibilbidean egon edo ez, AHTren bide berriaren xedea aitzinatzekotan.

4 minutu. Egungo bidea modernizatuko balitz, Bordeletik Baionarako tartean, proposatzen den trenbide berritik joango litzatekeen tren lasterrak ez lioke 4 minutuko aldea besterik aterako zaharretik joango litzatekeenari. Marie-Line Meaux andereari (François Fillon lehen ministroaren aginduz, “bide berriaren integrazio politiko ahalbait hobereana” bilatzera heldutako bitartekaria) emandako ohar konfidentzialetatik eskuratutako datua da. “Arazoa da –eranstu du oharra–, Baionan 18 minutuko geldialdia

aurreikusten genuela, eta 18 minutu horiek ere kontuan hartzen genuela kalkuluetan...”

“Misio baten burutzea eskatu zidaten, ez naiz bitartekari lanetara etorri” adierazi zuen Meaux andereak hiru hilabeteren buruan dosierra bukatutzat eman eta RFFren proiektua “egingarritzat” jo zuenean.

809 lagunek parte hartu zuten guztira RFFk 2010eko abenduan eginiko sondeoan. Galdeketa horretatik “biztanleen %89 proiektu berriaren alde eta %11 kontra” zirela ondorioztatu zuten interesatuek. Ondotik argitu denez, ordea, parte-hartzaileen %64k ez zuen bide berriaren proiektua ezagutu ere egin eta bitik batek uste zuen tren lasterra betiko bidetik pasarazteaz egiten zitzaiola galde.

1.600.000 tona merkantzia garraiatu da Hendaia-tik Mugerrera

2010ean (30 urteko trafikorik baxuena, SNCFren arabera). 2020rako oraingo bidearen kolapsoa iragartzen duen hipotesiak –eta beraz AHTren bide berriaren alde egiteko alibi nagusiak– 13 milioi tona merkantziako mugan bilatzen du justifikazioa. Baina 2020an kopuru horretara heltzeko, 8 milioi tonakoa behar zuen izan joan den urtekoak. 1,6tik 8ra bada aldea...

50 tren inguruk zeharkatzen du Hendaia-Baiona tartea egunean. Trenbidearen agintaritzaren arabera, 264ra arteko ahalmena du tramoa. Gaurko merkantzia kopurua bost aldiz handitu eta 10 milioi tona merkantziara helduta ere, gaurko bideek ondo erantzungo lukete, eta merkantzia garraioarentzat bezala, tren lasterrarentzat eta TER delakoentzat ere bideragarria izango litzateke.

Victor Pachon CADE Ingurumenaren Aldeko Taldeen bozeramailea:

«AHTren ereduak Concordearen bidea darama: hondoa jotzeko zorian da»

Zein duzue aurrera begirako estrategia?

Datozen hilabeteak eta urteak erabakigarriak izango dira gainbeheran doan AHT eredu honentzat. Eustea eta irautea, horixe da guk egin behar duguna. Borrokaldi hauen bidez iritzi publikoaren garaipena bilatzen dugu, gure alderako joera zabaltzea eta sendotzea.

Zundaketak oztopatzeaz gainera, bilkura publikoei jarraipena emateko asmoa dugu, baina proiektuak aipatzen duen korridoretik harago. Bideak ukituko ez dituen herrietan ere alferrikako proiektu honen gehiegikeria azaldu beharra dago.

Zer gertatzen da politikariek?

Administrazio handietako hautesiak xedearen alde daude. Bide berriak zeharkatzen dituen udalerrietako hautetsiek gurekin borrokan jarraitzen dute, kasu batzuetan gure eta haien arrazoibideak ezberdinak izanagatik ere (kasura, merkantzien garraioa Erdiko Pirinioetatik igortzearen alde daudenak). Haiekin osatutako frontea posible da, eta guk, ahal den bitartean bederen, mantentzearen aldekoak gara.

Martxoan hauteskundeak izanen dira. Zer eskatzen duzue?

Ez dugu eskualdeetako hauteskundeetan bezain gogor egingo. Lehen itzulian hautagaiak AHTren gainean erakusten duten jokamoldearekiko epai ditzaten eskatuko diegu geure taldeetako kideei eta boto-emaleei. Ez dugu, halere, kontsigna zehatzik zabalduko. Bigarren itzulian ez dugu mezurik zabalduko, jendeek hautua libreki egin dezaten eta nork bere familia politikoarekiko atxikimenduz joka dezan.

Hego Euskal Herriko "Y" edo "H" estrategikotzat jotzen direla eta Gipuzkoan lanak azkartu dituztela kontuan hartuta, zer nolakoa da



Espainiako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren eragina?

Ongi nabarmen antzeman dugu AHTren aldekoen estutu beharra, bai Eusko Jaurlaritzarena eta baita Akitaniako Lurralde Kontseiluarena ere. Haien lobbyaren plataforma kredituak bilatzen ari da Europar, Hego Bidasoako trenbideak Europako sareetan sartzeko. Horren karira, lurreko garraioaren %8 merkantzien trenbidetik pasatzea agindu dute helburu gisa. Alegia, 358 tonako 23na tren, norantzeko eta eguneko. 2006an, norantzeko 102 tren aipatzen zituzten. 2008an 62ra murriztu zuten kopurua; 2009an, 47ra... Merkantzien alibia erortzen ari zaio AHTren aldeko lobbyari.

Eta Europak zer eragin du?

Europa koherentzia kaskarreko proiektu honetaz nekatzen hasia da: bidaiariak Bidasoaren hegotik eta merkantziak iparretik; hegoko trenbideak iparrek bi baino 24 metro gorago... Oraisin 13 milioi murriztu izana horren adierazgarri duzu. Europak gero eta aukera eskasagoak ditu garai bateko finantzamendutan sartzeko eta egungo bideak modernizatzearen aldeko alternatibak indartzen ari dira. Ezer ez da oraindik erabakigarria.

AHTren proiektu berria Concordearekin alderatu izan duzue. Zein zentzutan?

Concordeak berrikuntza ekarri zuen teknologikoki, baina porrota komertzialki. Esportazioako produktu izateari utzi zionean eta Airbusaren aldeko apustua egin zenean industria aeronautikoak gora egin zuen, hain prestigiotsuak ez izanda ere eraginkorrak direlako. AHTren ereduak ere hondoa jotzeko zorian da. Errentagarriak diren tren laster apurrei %45 garestituko zaie bide-saria eta haien errentagarritasun hori kolokan jarriko da.

SNCFko presidentziatik heldu diren hitzak gogora ekarrita, "AHT itsukeria kolektiboaren argumentua da. Hazkundera zorpetzearen gainean eginga da. Burdinbide sistematik ezin du bere burua finantzatu. Abiadura Handiari zenbat eta gehiago eman, orduan eta handiagoa da zorra". Egungo bideak modernizatzearen alde egiteko garaia da. Concordearekin gertatu bezala, ez da hain prestigiotsua baina bai eraginkoragoa.

Korridoreak nola eragingo die laborariei?

Ipar Euskal Herrian kilometroko hektarea bat suntsituko dute. Urbanizazioak ahalik eta gehien saihestu eta laborantza sakrifikatu dute. Konfiskaziotik harago, desbideratze luzeek edota ubideen aldatzeak ere eragingo diete, eta baserri txikiak, lur-eremuak murriztuta, ez dute aurrera egiteko modurik izanen.

Zein protokolo jarraituko du proiektuak?

Urtearen amaierarako RFFk behin betiko bidea zehaztuta edukitzea du helburu, zalantzarik gabe hauteskundearen ostean, herri galdeketa egingo da eta horren ostean hartuko da azken erabakia.

Abiadura Handiko Tentsioa

AHT xedearen eztabaida publikoaren oroimena iraganeko leizeetan galdu dela dirudi eta hala ere, ondorioak tentsio iturri bihurtzen dira Lapurdiko egunsentietan. Argiak gaua urratu orduko Lapurdiko AHT xedea aitzinatzeko zundaketa lanak egitera doaz RFF eta Fondasol enpresateko langileak. Enpresa horientzat eta oro har Frantziarentzat azken lau urteotan egin diren manifestazio, bilkura publiko eta protesta jendetsuak ezdeusak dira. Tontor batek ez du AHT oztopatuko eta gutxiago batzuen haserreak.

Alta, oraingoak "betikoak" ez dira betikoak. Idelogikoki AHTren alde dauden hautetsi ugari Lapurdiko atalaren aurkako aldarria egin dute. Arrazoiak kontuan hartzekoak dira. Lehenik eta behin, Estatuak eztabaida publiko hartan aurkeztu zituen emaitzak faltsuak ziren. Oker bat, zioen RFF enpresak. Nahitara egindako faltsutzea, erantzuten dio Ingurumenaren aldeko CADE taldeak. Euria egin du geroztik. Eta euri horrek hautetsi gehienek gogoak freskatu ditu, bide berriaren beharrik ez dagoela ikusteraino.

Bide berririk ezan gaurko trenbidea 2020an saturatua legokeela zioen RFFk. Dagoeneko AHT hartzen duen lurraldea, zertarako behar du bigarren bide bat? Suitzako aditu talde batek lehenik eta Citec enpresak bigarrenik, bederen 2050eraino saturazio arriskurik ez dagoela frogatu dute. Gainera, ustekabearen hementxo herri elkargoek ere ordaindu behar dute bide berria. Kopuruak beldurgarriak dira eta ondoko belaunaldien zorra eraginen du, 50 urtez bederen. Eta horrez gain, Frantziako AHTk ez direla errentagarriak diote gero eta ozenago tren konpainiako adituek berek. Frantziako azken AHT xedea izan daiteke eta denbora Estatuaren nahikeriaren aurka dago.

Legearen eta zilegitasunaren arteko tala ezaguna. Herriarren hautetsien gehiengoak ez du xede hori nahi. Iritziak kontuan hartu gabe, xedea inposatu nahi du Frantziak. Zer axola dio etxegintzak eta turismoak duen eragina Ipar Euskal Herrian? Zer axola laborantza lurra erdibitzen badira edo etxaldeak bota? Zundaketa lanak gelditzeko borondatea adierazi dute CADEkoek. Legea eskuan, zundaketek ez dutelako legea betetzen. Eta hala ere, jendarmeez zundaketa lanen bidea irekitzen. Haren eskutik dator tentsioa, indarkeria. Bortizkeriarik gabeko ziklo baten esperantza bizi den herri batentzat bitxia benetan.

Aitor Renteria

Tren lasterraren alternatibak

Jean-Michel Normanld-ek, 2010eko irailaren 23an, *Le Monde*-n: "Brasilen, Rio eta Sao Paulo hiriak lotzeko, tren pendularra*" martxan jartzeko aukera aztertzen ari dira botere publikoak. Britainia Handian, Londres ekialdeko High Speed Two lotuneak ere irtenbide horri hel diezaioke. Alstomeko pendularrak edo Siemens tren konbentzionalak ere beste balio batzuk nabarmentzen dituzte. Ia 250 km/h abiadan pasatzen dira eta ez dute espresuki eraiki beharreko trenbide sare garesti baten premiarik. Errusiak dagoeneko mota honetako irtenbide baten hautua egin du Mosku eta San Petersburg hiriak lotzeko, eta baita Virgin taldeko trenbideek ere, Erresuma Batuan".

*Tren pendularrak abiada hartzeko inklinatu egiten dira kurbetan. AHTak, aldiz, guztiz zurrunka dira zentzu horretan, eta kurbek erradio oso handikoak izan behar dute ezinbestean.



Pantxo Tellier CADEko kidea, atzean Odile de Coral Urruñako auzapez andrea atzean duela.

Xedearen kontrakoak ez daude arrabotsa isiltzeko prest. Baina aldekoak ere ez. "Nola pasatuko da etorkizuneko AHTa egungo bideetatik, Baionak 17.000 lagun eta Biarritzek 1.800 biztanle besterik ez zituzten garaiak, alegia 1842koak, baldin badira?", erantzun zion agudo Jean-Marie Berckmans Akitaniako Merkataritza eta Industria Garbarako presidente ohiak; "egungo trenbidea egokitzeak inperu ekologikoa ekarriko lieke inguruko biztanleei, ez da ahantzi behar (Ipar) Euskal Herriko populatuena dela".

Argudio-borroka

Kopuruen gaineko argudioak behin eta berriz kolokan jarri zaizkiela-eta, xede berriaren defendatzaileek sentimenduen esparrura jo dute sarri. Hona hemen, adibide gisa, Max Brisson Akitaniako Kontseilari Nagusi miarritarrak iritzi artilu batean plazaratutako hainbat perla:

"Aurpegia txikitzen duen labankadaren antzean aurkeztzen da beti AHT, sekula ez garapenaren mesederako tresna bezala".

"Ozen adierazi izan dugu beti, gure herria orekatua eta harmoniatsua izatea nahi genukeela, baina ekonomia produktiboak bizi duena, eta ez, garai bateko 'errenta ekonomian' oinarritua".

"Ez ote dugu ikusten gure auzokide espainiarrak tren honen bidez datorren iraultzara egokitzen ari direla, 110 mila milioi euro inbertitu dituztela haien atzerapenari aurre egiteko? Inflexio honen bazterrean gelditu behar ote dugu?"

"Nik, europar naizen honek, ezin dut onartu Euskal Herria katearen maila hautsia izatea Europako garraio sarean, bere kokapenagatik, naturalki istmo mediterraniarraren eta ardatz atlantikoaren sarearen giltza izan beharko lukeenean".

"Paradoxa bitxia, bide berriari ezezkoa ematen diotenean, tren bidezko iraultzari, Europaren eraikuntzari, Bidasoaren bi aldean loturak indartzeari eta Eurohiriari ere ezezkoa ematen dioten horiek, denetan progresistenenak beharko luketen horiek, lur-jabe konterbatzaileekin egiten dutela bat". ■

• PERSONAIA •

Miren Urbietta



«Kantuan teknika da gakoa, ahotsa erabiltzeko modu egokia»

Isiltasuna izan zen lehenengo. Orkestraren akordeak, gero. Ondoren, sopranoaren ahots zirraragarria Jesus Aranbarriren lana interpretatzen. Miren Urbietta da, kantuan bakarlari.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco

Duela bi urte ezagutu zintugun hainbatek, 2009ko azaroan, ARGIAren 90. urteurrena ospatzeko Donostiako Victoria Eugenia antzokian egin zenuen emanaldiaren kariatara. Jesus Aranbarriren (1902-1960) *Zortzi euskal kanta* interpretatu zenigun.

26 urte nituela, baina 6 urtetan hasi nintzen kantatzen! Eskolanian lehenengo, abesbatzan gero... Txistua ikasi nuen, klarinetea hurrena... Nik banekien musika ikasi nahi nuela. Irakasle ikasketak egin nituen, baina Musika adarrean. Koru zuzendaritza ikastaroak ere egin nituen. Halako batean, kantu ikastea erabaki nuen, bakarlari, eta bide horretan ari naiz, bidea egiten, poliki-poliki. Dena dela, 2009 hura izan zen bidearen hasiera: ikasketak bukatu, zarzuela bat kantatu hemen, opera bat han, Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin kontzertu bat, ARGIAren emanaldia Euskadiko Orkestrarekin batera... Nire ibilbidearen hasiera!

Ordu arte, auzoan egin zenuen bidea.

Bai, Grosen bertan, Mariaren Bihotza ikastetxearen inguruan. Bertatik bertara bizi naiz, bertan ikasi nuen, bertan begirale, musika irakasle, kantari abesbatzan, zuzendari... Dena. Nire bizitzan bada inflexio puntu bat, Antxon Sierraren heriotzak eragin zuena. Gure eskolania eta abesbatzaren zuzendaria bat-batean hil zen. Txikitatik ezagutzen nuen, erreferentea nuen, harreman berezia nuen harekin... Antxon Sierrak bakarlari jarri nahi izaten ninduen, nire aldeko apustua egiten zuen. Ni, aldiz, ez nengoen prest garai hartan, oso lotsatia nintzen, eta ezetz eta ezetz esaten nion. Berak, halako eta halako kantatu behar nuela, bakarlari. Enel, orain ikusiko banindu! Poztuko zen, jakina. Baina bat-batean hill! Maiatzaren 31 batez hil zen, 2003an, eta, hain

zuzen, hil haren hasieran egina nuen nik, bizian lehenengo aldiz, zuzendaritza ikastaroa. Halabeharria zer den. Eta niri agindu zidaten eskolaniaren zuzendaritza hartzeko. Ez nituen 20 urte ere! Handik urtebetera, abesbatzaren zuzendaritza hartu nuen. Ez nuen horrelakorik uste izango!

Kantu ikasketak, bakarlariari dagozkionak, egin zenituen orduan, lagunek bultzatuta.

Bai. Bilbon magisteritza ikasita, klarinetea Donostian, eta koru zuzendaritza Mariaren

Nortasun agiria

Miren Urbietta Vega (Donostia, 1983). Bakarlaria. Irakasle ikasketak egina da Bilbon (2004), Musika espezialitatean. Klarinete ikasketak, Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorioan (2005). Kantu ikasketak, Musikenen, Maite Arruabarrena mezzosopranoaren eskutik (2009). Hainbat irakasle on izan ditu, eta hainbat ikastaro ederretan parte hartu. Irungo Luis Mariano Musika Lirikoaren Elkartean kantatuta dago Lleo-ren *Faraoiaren Gortea*, Breton-en *Usoaren berbena*, Chapi-ren *La Revoltosa* eta Caballeroren *Erraldoiak eta Buruhandiak* zarzuelatan. Hainbat operatan ere kantatu du: Donizettiren *L'elisir d'amore*, Verdiren *La Traviata*, Mozarten *Le Nozze di Figaro*, Verdiren *Rigoletto* eta Mozarten *Die Zauberflöte* eta *Don Giovanni* lanetan, esaterako. Donostiako Musika Hamabostaldian ere egin du lanik. 27 urte, eta Euskadiko Orkestrarekin, Bilbokoarekin, Valladolidekoarekin (Espainia) eta Valentziakoarekin (Herrialde Katalanak) kantatu izan du. Hamaika lan egina, baina bidean dela dio berak, bakarlari handi izateko ametsa gauatzeko bidean —asmotan—, guztizko intentzio eta lanean...



2009ko azaroan, ARGIAren 90. urteurrena ospatzeko Donostiako Victoria Eugenia antzokian eginiko emanaldia.

Bihotzan. Ardura handia zitzaidan! Klarinete ikasketak egina (erdi mailako ikasketak, alegia), eta goi mailakoak egiteko atarian nintzen. Nik ez nuen nire burua goi mailako klarinete ikasketak egiten ikusten, nahiz eta ordu artekoak ondo gainditu. Abesbatza zuzentzen ari nintzenez, zuzendaritza ikasketak egitea ere pentsatu nuen. Musika pedagogia ere aukeran neukan... Goi mailari ekin aurreko ikastaroetako batean, esan zidaten lagunek: “Zuzendaritza? Pedagogia? Eta zergatik ez kantua?”. “Ni, bakarlari?”. Ez zitzaidan buruan sartzen. Bai, jakina, abesbatzan egina nengoen bakarlari saioaren bat edo beste –gure amonaren poza!, “ze ondo kantatzen duzun!”–, baina hori ez da nahikoa. Dena dela, lagun haiek ekin eta ekin zioten, nik irakasleren bati ere galdetu, eta kantu ikasketak hasi aurreko froga presatu nuen, soprano ikasketak egiten ari zen lagun batekin. Froga hura gainditu eta hartu ninduten, horregatik hasi nintzen bakarlari ikasten. Harrezkero, ikusi dut mundu horretan aukerak baditudala.

Gorputz osoa kantari

“Batzuek, kantatzerakoan ahoa asko mugitzen dugula. Beste batzuek, gutxi mugitu eta sekulako ahotsa ateratzen dugula... Ahotsa ez da bakarrik ahoan gertatzen, ezta ahots kordetan bakarrik ere, gorputz osoko ariketa da, kantarion kasuan behintzat. Lepotik gorakoa ez ezik, esaten dizut, gorputz osoko lana da gure kantua”.

Bidea egiten ari zara, beraz.

Poliki-poliki. Hemen ez dago azkar ibiltzerik. Pentsatzen dut azkar ibiltzeko modu bakarra leku egokian garai egokian egotea izango litzatekeela. Hori gabe, poliki-poliki egin beharra dago bidea. Urte gutxi daramatzat bakarlari. Musikenen lau urtez ikasi nuen, baina gehiago ikasi behar dut: opera asko dago kantatzeko, lan horiek ezagutu behar dituzu, eta, horrekin batera, zeure burua ezagutarazi. Galizia Etxeko Korua, Mariaren Bihotza Abesbatza, Eskolania, Orfeoi Txikia eta Gaztea zuzendu ditut; beraz, bertako kantari, haien senide eta lagunak direla, eta bestetik San Bizente parrokiaren, Okendo kultur etxean eta Donostiako beste hainbat tokitan egindako saioak direla-eta, Donostian jende askok ezagutzen nauela esango nuke, jende kopuru handi xamarra, alegia, nahiz eta horrek ez dizun ematen kantari profesionala zarela esateko baimena. Musika Hamabostaldian kantatu ahal izateko, Kursaalaren zein Victoria Eugenia antzokian agertzeko, beste zer-

bait behar da: beharbada, deitura arraroren bat izatea, kanpoan ezagutua izatea, edo esperientzia-urte gehiago. Eta etxean ezin bada, kanpoan bildu beharko dugu esperientzia.

Donostian ezin.

Zerbait egin liteke. Urtarrilean kontzertua Donostiako udaletxean, duela bi hilabete Irunen, udan beste bat Deban... ondo dago, baina ez da nahikoa, eta kanpora joan behar bila, hemen ez dago-eta behar beste mugimendu. Esaterako, Donostian, urtean behin egiten da opera, eta, askotan, kanpokoak izaten da produkzioa.

Irunen, berriaz, horra non dagoen Luis Mariano Elkartea. Saiatzen dira opera bultzatzen, baina baliabide handirik ez dute, eta hango Amaia antzokia ere ez da oso handia. Eta, hala ere, nahikoa egiten dutela esango nuke. Arriagan eta Euskaldunan, gazteak bultzatzen ahalegintzen hasi dira. Iruñean, Baluarte eta Gayarre ditugu...

Etxean ezin bada, kanpoan...

Sei hilabete egin berri ditut Valentzian, hango Placido Domingo Perfekzionamendu Zentroan, zuzendari eta pianista ezagunekin egin dut lan han Alberto Zedda maisuak gidatuta. Errepertorio handiagoa ezagutu dut, zuzendari gehiago ezagutu ditut –eta haiek ere ezagutu naute ni–, eta ikasi ez ezik, emanaldiak ere egin ditugu, Enrike Garcia Asensio zuzendari handiarekin, esaterako, eta Valentziako Komunitateko orkestrarekin. Kontzertuak egin genituen, eta hori bezain inportantea izan da bertako Palau de Lesartseko operak eta entseguak ikustea. Jakina, Lorin Maazel da hango orkestra-zuzendaria, eta Maazel zuzenean ikustea sekulakoa da.

Nola gainditu duzu garai bateko lotsa? Ez duzu bertigorik agertokira igo eta ikusle aldra handiaren aurrean kantatzeko?

13 urteko neska

“Zer esan behar diot nik abesbatzan ari den 13 urteko neskari, kantua ikasten hasi ez hasi dabilenari? Ez du adin txarra. Zergatik ez? Gaitasuna duen jakin beharko litzateke, baina horra non duen abesbatzako zuzendaria. Esango dio berak zer edo zer. Nik, kantua gustatzen bazaio, musika kontzeptuak landuak baditu... baietz esango nioke. ‘Bide gogorra da’, diote askok, lehenengo gauza. Nik nahiago dut jendea kantuan ikastera animatu, bidea egitera lagundu”.

Mariaren Bihotza Abesbatzaren zuzendaritza hartu nuenean uxatu nituen lotsak. Koruko gazteena izatetik zuzendari izatera igaro nintzen, eta zuzendari izan nahi bada, zuzena izan beharra dago, ez dago erdipurdika ibiltzerik. Irakasle ikasketak ere garai hartan bukatu nituen, praktikak egin... Kontua da adorea bildu nuela, jende aurrean hitz egiteko gaitasuna landu behar izan nuen-eta. Zuzendaritzak –bai eskolaniarenak, bai abesbatzarenak– asko erakutsi zidan. Horrez gain, Musiken jasotako interpretazio eskolek ere asko lagundu didate.

Zuon bakarlarion kantua ez da, besterik gabe, ahotsaz baliatzea.

Ezta pentsatu ere! Interpretazioak berebiziko garrantzia du. Batez ere gaurko egunean. Opera, esaterako, modernizatu egin da, gizartea bezala. Esan nahi dut, sasoi batean ondo kantatzea zen inportantea, ez besterik. Gaur egun, opera oso aldatua dago: jantziak, atrezzoak... Eszena-zuzendariak garrantzi handia du, eta kantariak ere txipa aldatu beharra izan du, benetako interpretazioa egin. Oraingo opera ez da duela berrogeita hamar urtekoa, orduan baino pisu handiagoa du orain antzezpenak. Opera egileak letra jartzen dio musikari –edo, aldearantziz, musika jartzen dio testu bati–, zerbait transmititu nahi du, era bateko nahiz besteko sentimenduak (poza, tristura, kexa...), eta kantariak ere horri heldu behar dio. Obraren mezua ikusleari gerturatzea da agertokian dagoen kantariaren interpretazioaren helburua.

Zein hizkuntzatan?

Dagokion hizkuntzan. Italiaraz asko, baina baita frantsesez, alemanez, ingelesez, errusieraz... Bakarlari ikasketei dagozkien lau urteetan, lau hizkuntza ikasten ditugu (frantsesa, alemana, ingelesa, italiara), bai hitz egiten moldatzeko, edota zerbait ulertzeko



1. KANPORAKETA

Otsailak 12, larunbata, 20:30ean afaria, 10:30ean saioa

Oihane Perea
Rikardo Glz. De Durana
Xabi Igua
Alberto Martinez "Beito"
Bingen Sainz
Ainhoa Comas

LAUDIOko Basalarrina Elkartean

argia



AZKEN HITZA

Ez Dok Amairu

- **Sopranoa.** Horixe naiz ni.
- **Ainhoa Arteta.** Miresmena.
- **Maria Bayo.** Oso ezaguna.
- **Maite Arruabarrena.** Maite dudan maistra.
- **Andeka Gorrotxategi.** Potentzia.
- **Opera.** Lanbidea.
- **Zarzuela.** Entretenigarria.
- **Filmetako musika.** Mundu interesgarria.
- **Euskarazko musika.** Hunkigarria.
- **Antzoki bat.** Bartzelonako Lizeoa.
- **Hizkuntza.** Euskara.
- **Miren Urbietta Vega, 2011.** Bidean.
- **Miren Urbietta Vega, 2021.** Ametsa egia bihurtua.

moduan, baina batez ere maila fonetikoan, hau da, irakurtzeko eta ondo ahoskatzeko moduan.

Eta euskara?

Euskara ez da ikasten. Ezta gaztelania ere. Hemengo ikasle gehienek gaztelania jakiten dugu. Euskara... dakigunok badakigu, ez dakienak, ez. Dena dela, bakarlaria batek kantatuko duen musika gehiena, hau da, historian zehar idatzitako musikarik gehiena, italiaraz, alemanez, ingelesez eta frantsesez egongo da, eta, ondoren, bestelako hizkuntzaren batean kantatzea badagokio, baliabideak izan behar ditu hartan txukun kantatzeko, delako hizkuntza hartan hitz egiten dakien bati galdetuta, edo hiztegi fonetiko batean begiratu adibidez.

Galdera bat: ahotsa ez al da gastatzen?

Ez dakit, bada, hitza hori den, zuzen: “gastatu”. Bistan da ahotsa nekatu egiten dela, horretan ez da zalantzarik. Horregatik egin behar dizkiogu zaintza bereziak ahotsari. Kantariok, alegia. Zaintza horietan, osasuna da lehenengo: ohiko zaintzak, eta ariketa fisikoa. Zaintza bereziagoak dira, berriz, hitz egiterakoan garrasi ez egitea, gauez gutxiago irtetea, ez erretzea... Badira janaria estu begiratzen dutenak, hemendik bai eta handik ez jaten dutenak. Badira kontzertu egunean erritual bereziak betetzen dituztenak, janariaren ingurukoak, eta gainerakoak. Foniatraren kontsulta bisitatzea ere zaintza berezietan sartzen da. Besteren ibilbideari begiratzea ere ez dator gaizki. Plácido Domingok, esaterako, 70 urte bete ditu oraindik orain, eta berebiziko ahotsa du oraindik, kantari ari da. Sopranoetan, adibidez, horra Mirella Freni, 75 urte ez ditu

Beltzak

“Egia da, bai, soprano ospetsu batzuk arraza beltzekoak izan dira. Beltzak ezaugarri fisiko bereziak ditu? Baliteke, ezpain mamitsuak, gurea baino aurpegi zabalagoa... Horrek, esaterako, erresonantzi-kutxa handiagoa izatea dakar eta kantari beltzek ere, esango nuke, ahots lodi eta indartsuagoa dutela. Baina, tira, arraza zurikoen artean ere badira ezaugarri fisiko horiek dituztenak. Ez dago esklusibotasunik”.

aparte izango. Ikastaroa egin nuen duela urtebete, bera irakasle, eta ikustekoa zen egiten zituen adibideak. Mirella Freni utzia dago opera kantatzeari, baina ateratzen duen ahotsa haren disko zaharretan entzuten den soinu bera da. Eta galdetzen diozu zeure buruari: “Nola lortzen da hori?”, eta erantzuna, berriz, hitz bat da: teknika, ahotsa erabiltzeko modu egokia, horixe da gakoa. Horien ondoan, bestalde, urte gutxiagorekin kantatzeko zailtasunak dituenik bada, ahotsa “hautsi” duelako, behar bezala zaindu ez duelako, azken finean.

27 urte dituzu, noiz heltzen da bakarlaria helduarora?

Ez dakit. 30, 40 urte bitartean, esango nuke. Garai horretan ahotsa eginago dago. Zenbait kantariri begiratu eta, badirudi 40 urterekin gorenera heldu ohi dela jendea: ibilbide bat, eгина; lana dute, ospea... Horixe adina, beharbada. Baina denok gara diferente, nork bere bidea egiten du.

Non ikusi nahiko zenuke zeure burua 40 urterekin?

[Iribarre egin du] Nahi, egonkortasuna nahiko nuke nire lanean, halako antzokitan kantatuta egotea. “Kantutik bizi naiz, eta lasai nago” esateko modua izan nahiko nuke, “datorren hilabeteen halako lekutan kantatuko dut, eta hemendik bost hilabetera, beste halakotan”; hau da, proiektuak izatea esku artean, han edo hemen, baina etxeko lotura galdu gabe. Joan-etorriko bidean nahiko nuke.

Eta ARGIAren 100. urteurreneko kontzertuan kantari...

Bai... Zergatik ez? ■

ASISKO

MATTIN IRIGOIEN

ADUR

OKATXU

hegal egiten



Okatxu arkumea jaio da Ipar Euskal Herriko arditegi batean. Ama eta beste axuriak, artzaina eta zakurrak, koiole amerikar euskalduna, mendizale bizkaitarrak... Mundua ezagutzen joango da pixkana-pixkana.

Elkarriketa bizi eta jostariak, hizkuntzaren aniztasuna lanabes: Xuka, Toka eta Noka, euskalki arteko jolasak, artzain-eleteria, erran zahar eta berri... Eta hori guzia abentura dinamiko eta irringarrian zehar.



KAMISETA + LIBURUA

22€


argia

 ESKAERAK: ☎ 943 37 15 45 | denda@argia.com

Lurretik alde egiteko prestatzen

Munduko espazio agentziak maletak prestatzen hasiak dira Martera joateko. Denbora sobera dago, bidaia egiteko gai izango den ontzia sortzeko hamarkada bi falta baitira gutxienez.


Bitartean, ontzi horretan joango direnen inpaktu fisiko eta emozionala neurtzeko esperimentuak egiten dihardute.

UNAI BREA

ALDIZKARI HONEK 400 edo 500 urte gehiago irautea lortzen badu, norainoko txangoak proposatuko ditu Ihesi atalean? Oporretan Lur planetara joateko gomendioa egingo du, agian, Marteko erredakzioan idatzitako artikuluko batek? Barka irudimenari hain libre bidaiaitzen utzi izana, baina Barack Obamak esan zuenetik mende honetako 30eko hamarkadan posible izango dela jendea joatea Martera, bada...

Politikarien promesak tentuz hartu beharrekoak dira beti ere, baina planeta honetako espazio agentzien ahaleginek, horiek bai, aintzat hartzekoak dirudite. Haien asmoen sendotasunaren neurria ematen digu, esate baterako, oraintxe Moskun egiten ari diren Mars 500 esperimentuak. Iazko ekainetik eta aurtengo hondarrera arte, sei boluntario Martera bidaia simularitzen ari dira; 520 egun eman beharko dituzte benetako bidaia-aren antzeko baldintzetan (isolamendua, komunikazioetan atzerapena, espazio murrizta, elikagai kopuru mugatua...), eta euren gorputzak eta psikeak nola egokitzen diren aztertzen ari dira kanpotik begira dauden zientzialariak. Baina utz ditzagun, momentuz, akuriak beren moduluetan, eta goazen benetako Martera.

Planeta gorriaren diametroa Lurak duenaren erdia da; haren masa, berriz, Lurrarenaren hamarrena baizik ez; eta grabitatea, herena. Benetan garrantzia duen datua, hala ere, beste hau da: hemendik Martera dagoen distantzia ez da gure irudimenean kabitzen. Gugandik hurbilen dagoenean, 56 milioi kilometroko tartearak bereizten gaitu.



NASA

Lurretik Ilargirainoko distantzia 385.000 kilometro ingurukoa da. Apolo programako ontziak gai ziren hiru egunetan betetzeko tarte hori; astebetez funtzionatzea aski zen. Baina Martera joatea beste errota bateko ura da. Une honetan, gizakiok ez gara gai behar bezain ontzi handia hain urrun bidaltzeko, bere erregai eta hornidurarekin. Eta beste zailtasun bat gehitu behar zaio horri: Marteren

bat gehitu behar zaio horri: Marteren eta Lurraren orbitak ez daude lerrotatuta. Hots, ezin da hemendik hara lerro zuzena eginda joan.

Horren ordez, Hohmann-en transferentzia orbita deritzona erabili beharko litzateke.

Guztira, kalkulatzen da bederatzi hilabete behar direla helmugara iristeko.

Beste 90 egun bertan eman behar dira, itzuli aurretik Marte eta Lurra elkarrekiko modu egokian kokatu arte itxaron behar baita berriro.

Azkenik, beste bederatzi hilabete itzultzeko. Hainbeste oztopo gainditzeko behar den finantzaziorako ez zaigu bururatzen

“astronomiko” baino adjektibo hoberik.

Eta hala ere, joan nahi dugu, ontzat ematekotan Obama eta enparauen nahiarekin bat egiten dugula lurtar guztiok. Teknologiarean alorrean egin beharreko aurrerapausoak itzelak dira, baina agian horiek adina kezka sortzen du, espazio agentzietako goi-mailako burmuinengan, bidaia-irakurketak egokiro prestatu beharrak.

Isolamenduaren ondorioak aztertzen

Mars 500 da orain arte abian jarri den egitas-morik handinahiena, halako bidaia batek nola eragin ahal digun neurtzeko xedez. Europako Espazio Agentziaren (ESA) webgunean eskuratu daiteke esperimentuaren nondik norakoak azaltzen dituen txostena.



WWW.NEUROPSYCHOLOGIA.COM



ESA

Ezkerrean, Mars 500 esperimentuan espazio-ontziarena egiten duten moduluak. Eskuman, sei boluntarioetako bat arteria-presioa neurtzen. Proiektuaren xede nagusia da isolamenduak pertsonen osasunean dituen eraginak neurtzea. Besteak beste, honakoak aztertuko dituzte: psikologiaren eta bihotzaren arteko harremana; estresaren eta immunitatearen arteko lotura; dietaren eta ariketa fisikoaren eragina aldarrean; iraupen luzeko konfinamenduaren eragina metabolismoan...

Pertsonak denbora luzez espaziora bidaltzea ez da orain bururatu zaigun zerbait. “Han” egotearen zenbait efektu ezagun dira dagoeneko. Martera bidaiatzek zer du berezi? Batetik, iraupen aldetik aurreko marka guztiak hautsiko direla; bestetik, estreinakoz “etxe ondoan” egoteari utziko diogula. Martera doazen lehenengo astronautek inork ordura arte bizi izan ez duena biziko dute: edonora begiratuta ere ez dute Lurra ikusiko. Prestakuntzak prestakuntza, horrek sor dezakeen inpaktu emozionala zein den ezin izango da segurtasun osoz jakin benetako bidaiari ekin arte.

Urruntasunak beste ondorio bat ere badu: komunikazioak atzeratu egingo dira. Martetik hurbil dagoen astronautak mezua igortzetik mezu hori Lurrera iritsi bitartean ordu erdi inguru igaroko da. Beste horrenbeste itxaron beharko zaio erantzunari. Atzerapen horren ondorioak ere aztertzen ari dira Mars 500 proiektuan. Izan ere, hamaika faktorek astronauten psikean eduki ditzaketan efektuak ondo ezagutu nahi dituzte. Eta errebotez, balizko desoreka psikologikoei gorpuzari zertan eragin diezaioketen jakin gura dute.

Hala, besteak beste honako hauek aztertzen ari dira Moskun: psikologiaren eta bihotzaren arteko erlazioa; dietaren eta ariketa fisikoaren eragina aldarrean; estresaren eta immunitatearen arteko lotura; talde-dinamikaren eta bakardadearen eragina muturreko isolamenduarekiko adaptazioan; omega 3-aren eta ongizate psikologikoen arteko harremana; iraupen luzeko konfinamendua-

ren eragina metabolismoan; mikrobioen ekologia isolamendu eremuan eta haien eragina giza-osasunean...

Proiektuaren ahulguneak

Gutxienez urtebete inguru itxaron beharko da saiakeraren behin-betiko emaitza jakiteko, baina bitartean, sei boluntarioen bizipenen berri jaso daiteke ESAREN webgunean, aldiro-aldiro misioaren egunerokoa argitaratzen baitute, argazki eta guzti. Ez da harritzekoa hedabide batek baino gehiagok “Marteko Anaia Handia” goitizenez bataiatu izana Mars 500 proiektua.

Komentario ironikoak bakarrik ez, kritika serioak ere jaso ditu egitasmoak. Esaterako, esperimentu osoan zehar grabitate Lurreko bera izango da, agerikoa denez. Grabitaterik ezak zer nolako kaltea egin dezakeen aztertu izan da aurretik; besteak beste, gihar eta hezurren atrofia eragiten du. Giharrak nahiko azkar bueltatzen dira bere onera Lurrera itzuli eta gero –guztiz berrosatzeko, espazioan igarotako egun bakoitzeko beste egun bat igaro behar da Lurrean–, baina hezurak sendatzea zailagoa da. Espazioan hiru eta sei hilabete bitartean eman dituenak bizpahiru urte behar ditu horretarako, eta ez dago segurtatuta lortuko duenik. Zer ekar dezake 520 egunez grabitaterik gabe bizitzeak? Mars 500ek ez dio horri erantzun.

Proiektuari leporatu zaion beste hutsetako bat da boluntarioek, nahi duten unean, eskubidea daukatela botoi gorri bat sakatu eta modu horretan abentura bukatutzat emateko. Hala

Mars 500 esperimentuak ez dio funtsezko galdera bati erantzun: norainoko kaltea egiten dio osasunari grabitaterik gabe 520 egun bizitzeak?

egiten dutenak “hildakotzat” joko dituzte, eta esperimentuan esku hartzeagatik dagozkien 82.000 euroak kobratu gabe itzuliko dira etxera. Baina benetako bidaian ez da egongo botoi gorririk. Ez zen hobe, euren adaptazio-gaitasuna neurtze aldera, Mars 500-eko boluntarioei “espazio-ontzitik” irteteko aukera zeharo eragozte 520 egunak igaro arte?

Erradiazioa izan daiteke areriorik ankerrena

Gauza asko aztertuko dituzte Mars 500-en, baina beste asko ez. Estatubatuarrak denbora daramate Martera joatearekin pentsatzen —nahiago dugu ez jakin zer asmok gidatuta—, eta azken urteotan zenbait galdera jarri izan dituzte mahai gainean. Hona bat: zenbaterainoko kaltea egingo lieke espazioko erradiazioak astronautei? Izpi kosmikoek etengabe zeharkatzen dute gure eguzki-sistema; oso abiadura handian mugitzen diren protoiak eta nukleo atomikoak dira. Zelulak ukitzean, ADNaren osaketan aldaketak eragin ditzakete, eta ondorioz, minbizia. Lurrean atmosferak babesten gaitu haiez, eta babes hori Nazioarteko Espazio Estaziora ere iristen da. Ilargirako bidaian kasuan, haien iraupen laburrak gutxitzen du arriskua, eta gainera Ilargiak berak aterkiarena egiten du hein batean. Baina urrunago doanak ez dauka estalkirik.

NASAn badute eztabaidarik beste zenbait gairi buruz: hain iraupen luzeko bidaian, zer egin espazioan hildako astronautaren hilotzarekin? Lurrean ezbehar bat izanez gero astronauta baten sendian, berehala jakinarazi behar zaio ala itxaron? Sexu harremanak debekatu behar dira, edo agian sustatu? Azpimarratzekoa da Mars 500-en dauden sei boluntarioak gizonezkoak direla, ez dakigu zein gustudunak sexu kontuetan. Misiorako emakumerik hautatu ez izana ere aurpegiratu diete haren antolatzaileei.

Martera, zertarako?

Bada, hala ere, eztabaida etiko bat horien guztien gainetik: zilegi da gu Martera edo beste planeta batera joatea, ikerkuntza zientifiko hutsaren aitzakiarekin joan arren? UNESCOren 2004ko argitalpen batean honakoa irakur daiteke: “Ingurumenarekiko begirunearen auzia espazioko astroei ere badagokie, batez ere bizi estralurtarra aurkitzen bada. (...) Espazioaren konkistak izan duen berpiztea dela-eta sarritan mahai gainean jarri den beste arazo etiko bat hau da: nori dagokio espazioaren eta bertako gorputzen jabetza? Ilargian edo Marten kolonia iraunkorrak jartzea lortuko balute, zenbait naziok eskubidea izango lukete espazioko eremu hori erreklamatzeko?”. Galdera bera egin genezake hain urrun joan gabe. ■



AQUARIUM

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1
20003 Donostia (Gipuzkoa)

Tel: 943 44 00 99

aquariumss@aquariumss.com
www.aquariumss.com



Biderkatuak eta handituak

M

undialak eta hauteskundeak lau urtetik behin bizi ditugu, bai —aurreratu beharrik gertatzen ez denean,

hauteskundeen kasuan—. Gogoratzen dut, *Naranjitoren* garaian —hamarkadak iraun zituela lirudike—, elkarri kro-moak aldatuz igarotzen genituela jolasaldi osoak. Lau urteren buruan holako edo halako futbolaria izatea amesten genuela edo zutela mutilik gehienek. Lau urte, orduan, asko baitzen. Ez genekien urte tarte horrek zer suposatzen zuen eta, beraz, lau urteren buruan gauza handiak egitekoak ginen! Ametsak ziren, haurtzaroak zilegitutako ametsak!

Hauteskundeetan proposatzen zaizkigunak ere bai, horiek ere ametsak izan ohi dira. Errealagoak edo ez errealagoak diren sinestea, irakurlearen esku utziko.

Beñatek dioen bezala, mundialean bezala, oraingo hauteskundeetan ere, txapeldungaiak, faboritoak, garaileak, jarraitzaileak, berritzaileak, joko zikinean arituko direnak... agertuko eta errepikatuko dira.

Lehen hurbilketa batean egindako inkestak arabera, langabezia da, gaur egun, Espainiar Estatuko biztanleriaren lehenbiziko kezka. Gutxitan bezala, ETaren terrorismo-arekiko ardura bigarren edo hirugarren maila batean gelditu da —su-etenaren aurretik egindako inkestetan ere—. Langabeziari aurre egingo dion taldea edo alderdiaren bila arituak gara dagoeneko. Ez dakit inkesta honetan gurasoek edo gazteek —ala biek— parte hartu zuten. Eta gazteak aipatzen ditut —19tik 25 bitartekoak nagusiki—, duela hilabete batzuk Bilbon, Donostian eta Gasteizen Gazteak eta hedabideak izenburupean egindako Work Kafetan, ondorio bitxi

DANI BLANCO



Ana Urkiza



Padron



Sarasola

batzuetara heldu ginelako: hedabideek gazteriaren alde makurrera ematen dutela jakitera. Beste era batera esanda, albiste ezkorrek baizik ez direla eskaintzen: salbuespenak; bitxikeriak. Eta, orokortzerakoan, gazteria “zerbait arraro, ulergaitz eta deserosotzat” jotzen duena, horrek daka-

rren gaztearen irudi kaskarraren gaineko eraginarekin.

Ezagutu ditugu, baita, “ni-ni” bezalako programak, gazteen mundu marginal bati buruz egindakoak. Edo, beste aldean, arrakasta lortu dutenak ditugu ikusgai. Batez ere, kirolaren praktikan izar eta ezagun bilakatu direnak edo ditugunak. Gaztea, beraz, bi mutur oso bereizitan kokatzen dugu: edo hedabideetako izarren artean, edota hedabideetako ghettoetan zokoratzen erakutsi digutena.

Azken egunotan, oster, ni-ni edo ez-ez belaunaldiko gazteen egoerari buruzko erreportaje bat baino gehiago argitaratu da —idatzizko medioetan, batez ere— eta, noski, horiekin batera, belaunaldi berean bai-bai esaten eta egiten dutenetaz. Harrigarriak iruditu zaizkit datuak. Ni-ni-ak baino bai-bai-ak zenbat gehiago diren baieztatu ahal izateaz —Euskal Autonomia Erkidegoan, bederen— baino areago, bai-bai dioten horiek lau urteko epealdi hauean jartzen duten itxaropena zein urria den konturatzear.

Belaunaldi nagusiak beti entzun ditugu berrietaz gaizki esaka. Nagusiak bere garaia ederresten duelako eta berria gutxiago ezagutzen eta ulertzen. Konturatu gabe, ordea, belaunaldi berriak, gazteak, aurrekoen edizioen kopia biderkatuak eta handituak edo hedatuak direla.

Oraingoan, badirudi, zer-bait aldatzen ari dela. Hauteskundeak datozen seinale? ■

Belaunaldi nagusiak beti entzun ditugu berrietaz gaizki esaka. Nagusiak bere garaia ederresten duelako eta berria gutxiago ezagutzen eta ulertzen. Konturatu gabe, ordea, belaunaldi berriak, gazteak, aurrekoen edizioen kopia biderkatuak eta handituak edo hedatuak direla

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Xabier Etxaniz Erle

IDAZLEA

Zipriztinak

EUSKALDUNOK INFERNURA. Aurreko batean Bartzelonako lagun bat etorri zen Gasteiza bere amarekin. 90 urteko amona xarmanta zen eta oso sinpatikoa. Gustura egon nintzen beraiekin hiriko eta probintziako bazterrak erakusten; halako batean, baina, kotxea gidatzen ari nintzela amonatzakoak bota zidan: “Euskaldun guztiok infernura joango zarete”. Ni zur eta lur geratu nintzen, ikaratuta. Orduan amonak jarraitu zuen gure paisaiei begira: “Paradisua ezagutu duzue”.

GOXOKIAK. Mahai baten inguruan gaude, bazkaltzen, lasai asko, herrialde ezberdinetako pertsonak kongresu baten aitzakian bilduak. Nire ezkerrean katalan bat dago eta eskuinean galiziar bat. Aurre-aurrean emakume musulmana dugu, zapiatz estaltzen du ilea eta mahai gaineko ardoa baztertuz laranja zukua eskatu du. Euskaldun batekin ari da hizketan eta bazkari bukaeran irribarrez mahai azpitik kutxa bat atera eta goxokiak eskaintzen dizkigu guztioi. Pozik dago bart bukatu da ramadana eta gurekin ospatu nahi du. “Oso eskuzabalak dira, beti dute detailetxoren bat besteekin” entzuten dut nire ondoan.

BURKA. Burka eramatea debekatu omen dute hainbat lekutan. Noiz debekatuko diete prozesioetan bizkarra zauritzen dutenei kolpeak ematea? Noiz kenduko dituzte gurutzeak gure mendi tontorretatik? Noiz esango diete mojei ilea erakusteko? Besteen erlijioaren



ALEX LARRETXI

ezaugarriak ikusten ditugu etengabe baina kristau erlijioa ikusezina zaigu, naturala.

HERIOTZAREN AURREAN. Txilen jasoa, iragan urte hasierako lurrikaran. Hotel batean dago koadrila handi bat. Herrialde eta adin ezberdinetakoak dira. Goizeko lauretan lurra mugitu eta eraikina belarra haize egun batean bezala mugitzen da. Behera jaitsi behar da, irten hoteletik, arriskua dago eta.

Heriotzaren aurrean badira beldur direnak... batzuk galtzontzilotan jaisten dira –toalla txiki batekin–, emakume bi nahiko dotore –pijama, bata eta lepoko zapia ere jantzi dute “hotz egiten du ordu hauetan”–, bada pijama plantxaturik duena ere, baina guztiak zur eta lur geratzen dira emakume bat ikustean, altxatu, aldameneko gelan duxatu –“nirea hondakinez bete baitzegoen”– eta jantzi ondoren jaitsi da. Nolako patxada izan duen aipatzen diote, bere erantzuna bestelakoa da: “Ez pentsa, ilea lehortu gabe jaitsi naiz”.

BA AL DA BIZITZARIK? Zerua eta infernuaz hitz egiten da, heriotzaren ondorengo bizitzaz, han sufritu edo jasango duguna. Hinduek hurrengo bizitzan hobeto egotea honetan sufritu ohi dute, kristauek zerua irabazteko, Mikel Laboaren kantan aipatzen zen bezala, baina testuinguru honetan hona hemen Galiziako herri bateko paretan aurkitutako pintada bitxia: “Ba al da bizitzarik heriotzaren aurretik?”. ■

« Galiziako herri
bateko paretan
aurkitutako
pintada
bitxia:
‘Ba al da
bizitzarik
heriotzaren
aurretik?’ »

TXANDAN

Amatiño



Txorizo-tortilla egiteko txerriak eta oiloak parte hartu behar izaten dute baina ez, ordea, maila berean.

Arrautza jartzeko oiloak lagundu behar izaten du eta txorizoa egiteko, aldiz, txerriak bere burua benetan konprometitu behar du.

Partaidetza eta esku-hartzea erabat sozialdu bide diren garai honetan gero eta gehiago dira

Txorizo-tortilla

« Aspaldion, hainbatek uste du
arrautza errutea klik egitea
besterik ez dela »

arrautza erruleak eta gero eta gutxiago txorizo jartzaileak. Eta erruten ere, ahalik eta arinen, badaezpada.

Kulturaz, hizkuntzaz, ingurumenaz, ekonomiaz, kontsumoaz, energiaz, garraioaz... ez da sekula aldarri-errulerik falta izan. Baina, aspaldi honetan, hainbatek uste du arrautza errutea klik egitea besterik ez dela.

Galdetu bestela herri-elkarteei, lan-taldeei, odol-emailei... ■

Gorka Moreno Marquez

EHUKO SOZIOLOGIA IRAKASLEA

NAS baten beharra

Berlingo harresia erori edota bota zutenean, hainbat harresi ere bertan behera gelditu zirela esatea ez da ideia berria. Ez naiz ni harresi horren dohainak edota Ekialdeko

Europako sistema politikoak defendatuko dituen izango. Hala ere, hormigoizkoak ziren hormak erortzeaz gain, ideien erabateko aldaketa eman zen. Gaur gero, neoliberalismoan eta kapitalismo basatian oinarritutako ideiek ez dute arerio ideologiko serio eta argirik izan, eta horiek ideologien nolabaiteko hegemonia lortu dute. Aurrena, areriorik ez duela aprobetxatuz, eredu posible bakarraren irudikeria saldu du kapitalismoak nolabait.

Batzuek esan dezakete saiakera edo proposamen ezberdinak izan ditugula kapitalismoaren aurrean azken urte hauetan, baina hauen bilakaera eta eraginkortasuna aintzakotzat hartzea gehiegi ez ote den iruditzen zait. Mugimendu anti-globalizatzaileak –edota beste globalizazio baten alde egiten duena– adibidez, muga handiak ditu. Lehenik eta behin, askotan kapitalismoaren aurkako mugimendua bezala jaio da, baina salbuespenak salbuespen –Porto Alegreko bilerak hor daude– proposamenen aldea gutxi landu da, mugatua izan da eta gutxienez horien oihartzuna



IÑIGO AZKONA



Narratiba Alternatibo

Sinesgarri (NAS) baten

beharra dugu. Batetik,

narratiba alternatiboak

bizitzaren inguruko eredu

ezberdina eskaini behar

digu, eta bestetik,

sinesgarritasuna



nahiko antzua izan da iritzi publikoaren aurrean. Hori azaltzeko noski, ezin dugu ahaztu talde anitz –sarritan izaera oso ezberdinetakoak– bildu direla denominazio horren azpian. Era berean, mugimendu horren “arrakasta” ezagunenak kapitalismoa zuzentzen duten erakundeen goi-bilerak eteteko saiakerak izan dira, baina, segurtasun-neurriak handituz eta hiriak gotorleku bihurtuz, eragina asko murriztu da, baita euren inpaktu mediatikoa ere.

Testuinguru horretan, errealitatea deskribatzeko narratiban kapitalismo neoliberal gailendu dela eta hein handi batean aukera bakarra dela dioen ideia denok –gehienok– barneratu dugu. Honen harira, inoiz baino gehiago Narratiba Alternatibo Sinesgarri (NAS) batean beharra daukagula uste dut. Alde batetik, narratiba alternatiboak bizitzaren inguruko eredu ezberdina eskaini behar digu ikuspegi kapitalistari aurre egiteko; eta bestetik sinesgarritasuna. Azken elementu hau garrantzitsua da, benetan gizartean eragin nahi bada eta populazioaren zati garrantzitsuak ideia hauek aintzat hartzea nahi badugu. Bestela narratiba berria talde sektarioetara ailegatuko da soilik, eta noski, narratiba handiak gizarte osoarentzat dira halabeharrez. ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Aplikatzea erabaki zuen Estatuak. Enbarazu egiten zion guztia eta arrotz zitzaion oro desagerrarazteko makina jarri zuen martxan, egin desmasiak justiziaren teilapean ezkutatuz, guztia desegin nahi izan zuen iritzi publikoa nahiera tronparaziz. *Egunakaria* eta *Udalbiltza* kasuek huts egin diote, baina gaitzerdi, ez dut nire inguru erdaldunean zipitzik entzun tamainako eskandaluari buruz. Enpresak eta haien ondasunak xahutu egin dituzte inpunitate osoz. Ez dute barkamenik eskatu, egin dituztenak barkatzerik ez dagoela jakitun. Beren tribunaletako erabakiak errespikatzen omen dituzte, nahiz eta konpartitu ez. Hori

Oro da ETA

hartu dute esaldi marabillosotzat, beren estatuaren zuzentzat dutena. Gainera elementu batek ematen die betiere arrazoiak: torturak.

Atxilotuen hamarretik seik torturatu egin dutela aitortzen du. Eta hori da hain zuzen etakideen aurrean gaude naren seinale ezin ukatua. ETArek estrategiaren aritzen dira atxilotu gehienak torturatuak izan direla aitortzean, ezaguna baita ETArek agindua, atxilotuek betetzen dutena nahiz eta komisaldegietan bikain artatu eta are bikainago tratatu. Eta jukutria hori aski da ETakoak direla frogatzeko. Atxilotuen dorpezia handia da. Epaileek zigorra emateko aski dute atxilotuen tortura salaketari belarria ezarri bestea aldera begiratzearekin. ■

BERTSO BERRIAK

Ane Lalsaka Mayo

Ametsen lengoia

I

Betaurrekoak utzi ondoren
ohe ixkinako mahaian
barneratu naiz gauero hemen
hasi ohi dudana bidaian.
Nahiz ta nekeak bere lekua
badaukan nire soslaian
indartsuago sentitu ohi naiz
oheratzeko garaian...
Dena errazago konprenitzen
denez ametsen lengoia
beste behin ere galdu nahi nuke
izarapeko paisaia
eta betazal pisutsuekin
marrazkiak egin nahian
mundu berri bat sortzera noa
nire gelako sabaian.

II

Seme-alabarik ez du galtzen
pobre jaio den herriak
atzerritarrak bertako gisa
hartzen ditu atzerriak.
Ez dira ikusten planideraz
betetako hilerriak
negarrik egin gabe erditu
ohi dira jaioberriak.
Harritzen gara, *Diario Vasco*,
Garak edota *Berriak*
eguneroko ogi baititu
pozezko eleberriak.
Negua ere lorez betetzen
duenez udaberriak
zuri beltzean ematen dira
koloretako berriak.

III

Gure herriaren egoera
badago diferentzia
terroristatzat ez baita hartzen
euskaldunon kontzientzia.
Azkenaldian arraro dago
Madrileko audientzia
lehen baino askoz urriagoa
baita gure presentzia.
Urruti daukagu herri zahartu,
ahaztuen dekadentzia
bide berean batu zaizkigu
Katalunia, Valentzia...
Euskal Herriak badauka lurra,
hizkuntza ta esentzia
lortu du orain arte amesten
zuen independentzia.

IV

Diru galerarik ez du sortzen
jokoak eta pokerrak,
zientziaren aurka galdu ohi dute
IHESAk eta kantzerriak...
Irrien lagunak diren Pirritx
eta Porrotxen posterrak
bezain alaiak bihurtu dira
mundu osoko bazterrak.
Lehenago minaren gune zena
konkistatu du plazerrak
goizero ematen dizkiegu
ingurukoei eskerrak.
Ume jolasen ardatz ez dira
fusilak eta bunkerrak,
garai bateko pelikuletan
agertu ohi dira gerrak.

V

Guk ez ditugu munstro gisako
etxeorrazak zutitu,
ez da gertatu lehenago beste
kutsadurazko istripu,
agintariak erraustegien
aurka ditugu gainditu,
pegatinetan ez da ageri
jada "AHT gelditu!"...
Lurra maitatzen ikasi dugu,
zerua da oskarbitu,
aspaldi ez ditu ziklogenesi
beldurgarriak erditu,
tsunami edo lurrikarekin
mila bihotz erditu...
eta Saharan basamortuak
loreak ernaltzen ditu.

VI

Ilusiorik ez da faltako
nire gaurko testigantza
bertso hauek esan dudana
ez dut jarri nahi zalatzan.
Dena eta guk nahi genukeena
jarri ditzagun balantza
biak berdindu ta orekatu
ditzakegun konfidantza.
Nire tokia egin ondoren
utopien enparantza
ia galdu naiz errealtate
honetarantzko mudantza,
gaua joan da ametsak egi
bihurtzeko esperantza
ta eguzkiak harrapatu nau
ilargiarekin dantza.

XXII. Zapiain Anaiak Bertsopaper Sariketako sorta irabazlea.

Bertso guztiak argia.com-en.

DOINUA: "Eguzkiak urtzen du goian".



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Literatura

«Bizipoza ez da gazteen kontua bakarrik»

3 *Mariak*. Halaxe du izena Arantxa Urretabizkaiaaren azken nobelak; *Erein*-ek kaleratua: “Aisa irakurtzen dela esan didate. Ondo da. Baina, zer gustatu zaie? Zer ez? Harritzekoa, ze zailtasunak ditugun oraindik ere euskaldunok euskaraz irakurtzeko” adierazi digu.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Karlos Corbella

ARANTXA URRETABIZKAIA (Donostia, 1947). Poesia, prosa eta kaosa hitzen erriman eta erritmoan abiatu dugu solasa. Arantxa bulegaria edota erizaina izanaz mintzatu gara. Idazleaz ondoren. Bi elkarriketa ehuntzeko hitzak eskaini dizkigu: “Letra kontuetan bi eratako pertsonak dira, batzuk txoriak dira eta besteak ornitologoak, bestetzuk biak batera. Ni txoria naiz”. Gazteagoa zela poesia idatzi zuen, eta orain ere ari da tarteka-marteka: “Begirada poetikoak ez zaizkit alde egin, eta nire prosak kutsu poetikoa gorde duela uste dut”.

Idazle txoria den aldetik, pertsona aske sentitzen dela esan digu: “Pertsona libre naizela uste dut, asko preziatzen dut askatasuna. Une bakoitzean aproposa iruditzen zaidana egiten dut, ohikoa dena kontuan hartu gabe. Ez dut errebeldia puntua galdu nahi”. Horra hor Arantxa Urretabizkaia.

Dena dela, idazteaz jardun dugu oroz gainera, Hondarribian: “Istoria kontatzailatzat dut nire burua, baina lanbidez kazetaria naiz, eta bizibidea irabazi eta gero, literaturarako geratzen zaidan denbora gutxi da”.

Hona, 3 *Mariak* nobelaz idazleak jaso duen inpresioetako bat: “Aran, asko gustatu zait, oso polita da, baina askok kritikatu dute aisa irakurtzen delako” esan zidan ahizpak. “Hori zer da, akats bat?” erantzun nion. “Ez, baina sartuko dira horrekin...”. “Bada, sar daitezela”. Euskal lite-

raturari buruzko kritikaz ere zenbait txatal eskaini dizkigu. Horiak tiraderan laga ditugu, txatal gordeen artean.

3 *Mariak* liburuaren azala eta izenburua bitxiak egin zaizkit, biak ala biak.

Argitaletxeak beste azal bat eskaini zidan eta lehenengo aldiz nire bizitzan “azal horrek ez dit balio, ez polita edo itsusia delako –finean, hori iritzi kontua baita–” esan nien. Lehenengo azalak nobelaren kontrakoa iradokitzen zuen: hiru neska txiki zeuden txuri-beltzezko



Arantxa
Urretabizkaia



"3 Mariak ez da soziologia liburua, ez autolaguntza liburua ere. Baina sinesten baduzue, lortu dut. Ez badut lortu irakurleak sinestea, kale egin dut".

argazkian. Horrek, batetik, neska koskorrei buruzko istorioa islatzen zuen, baita zahartzaroaren irudi tradizionala ere. Protagonistak ez dira atzera begira bizi ordea, aurrera baizik. Bigarren azala ontzat eman nuen. 3 horrela, zenbakiz, nik jarri nuen. Arraroa da izenburua zenbakiz jartzea, baina nik horrela imajinatu dut. Loreek ere garrantzia dute, hiru hirusta lore dira: bi elkaturik, bestetik urrunduak.

Protagonistak hiru dira, hirurak *Mariak*. *Txuri*, *Gorri* eta *Handi*. Hondarribiako hiru Ana ezagutu ditut nik: *Anagorri*, *Anatxiki* eta *Anahandi*.

Anahandi hori laguna dut. Telefonoz deitzen duenean "*Anahandi* naiz" esaten dit. Izenetako bat hortik hartu nuen. Bestalde, gurasoen etxean izeba soltera bat bizi zen, etxeaz arduratzen zena —amak kanpoan lan egiten baitzuen—. Izebari "goazen *Gorri*rengana" entzuten genion. Hortik *Marigorri*. Izeba eta laguna jostunak ziren.

Izengoitiak ez zaizkizula gustatzen entzun dut nonbait. *Txuri*, *Gorri* eta *Handi* halakoak dira. Hala da. Lehen orrialdean *Txuri*k "...izengoitia sekula maite izan ez badut ere" dio. *Txuri*

ri "tribuaren agintearen" marka iruditzen zaio eta niri ere bai. Ez zaizkit gustatzen, baina beraiek onartu dute beren bizitzan.

Hiru emakumezkoen istorioa ote da? Hiru zaharren istorioa? Hiru jubilatuen istorioa?

Hiru emakume zaharren bizitza da hamabost hilabeteen. Urritik abendura eta hurrengo urte osoko hilabeteak dira; 2000. urtekoak. Emakume zaharrak dira, ez dira jubilatua, ez bestelakorik, zaharrak dira zuzenki, eta izen hori errebindikatzen dute. Batez ere *Gorrik*.

Jubilazioa, erretiroa, erretreta... Zer deritzozu izenoi?

Gizarte honek gorroto du zahartzaroa, zuzenki gorroto ere. Eta horren errudun nagusia nire belaunaldia dela iruditzen zait. Guk asmatu genuen gaztaroa zela bertute guztien gailurra. Lehen pertsona helduak zeuden gailurrean, eta nire belaunaldiak erabaki zuen gaztetasuna zela gailurra, hortik aparte dena okerrera zihoala. Eta ziur aski, orain guri tokatzen zaigu zahartzaroa errebindikatzea.

Zergatik gertatu zen badakizu? Gerra ondorengo erreakzioa izan zen, apika?

Ez. Fenomeno hori 1968ko maiatz garaian hasi zen, mundu osoan, ez hemen bakarrik. Hemen bereizkuntzak —izan— ditu. Orain gaztetan hori asmatu zutenak ari dira —gara— jubilaziora heltzen. Niri zahartzaroa interesatzen zait, begibistan dago hori. 68ko maiatza bizi genuenon artean —zahartu ahala— zahartzaroa ikusteko beste modu bat sortzen ari da: "Hau konpondu beharra dago, gero eta zaharragoak gara, gorroto dugu zahartzaroa" entzuten dugu orain. Baina zerbaitek ez du funtzionatzen. Zuk edonori —gizon edo emakumeri— "dauzkazu urteak baino gutxiago ematen duzu" esaten diozu, eta ia denek sinesten dizute, sinestu eta eskertu. Patologikoa iruditzen zait.

Zahartzaro berri baten aldarria al da nobela? Eredu berria proposatu nahi al duzu?

Hainbeste ere ez. Bizipoza ez dela gazteen kontua bakarrik agertu nahi dut. Ez digula inork agindu behar nola zahartu, norberak erabaki dezakeela. Gure ama zena hil zenean, duela bost urte —96 urterekin hil zen—, hasi zitzaidan ideia garatzen. Nire buruari esaten nion —eta semeari ere bai— "amonaren bizitza alaitzea dagokigu". Amaren azken urteak aprobetxatu nahi nituen. Haren eta haren inguruko kontuak bizi nituen, zahar kontuak. Unibertso horretan sartuta hasi nintzen nobelaren ideia garatzen. Fikzioak zer-nolako zahartzaroa bizi nahi duan ulertzen lagundu ahal zidala pentsatu nuen.

Zahartzaroari buruzko ideologia eskas al dugu?

Bai. Guztiz. Ideologia falta zaigu eta jendea ez da horretaz jabetzen. Horren zantzu batzuk badaude, baina ez dago corpus bat. Behinola, Gipuzkoako Aldundiak antolatutako hitzaldi batean zahartzaroaz jardun genuen. Bertan zeudenei honela esan nien: “Hasi pentsatzen nire adineko jendea zahar egoitzetara joaten hasten denean, zahar egoitzak goitik behera aldatzen hasi beharko direla. Gu ez gara gure gurasoen belaunaldikoak bezala izango, ez horren otzanak behintzat”.

Txuri, Gorri eta Handi: nor da Marihandi?

Herritik alde egin duen pertsona mindua. Herriari nola tratatu duen barkatzen ez diona. Tabernari baten alaba da. Militar bat ezagutu du, karreraduna, dikta-dura garaian... Horrek estatus bat ematen dio. *Handi* bezalakoak badaude gure herrian, gutxi-asko. Une batez mespretxatua sentitu da. Nik bere jarrera miresten dut, amore eman nahi ez izate hori. Gaitasun hori miresten dut, baina ni ez naiz halakoa.

Marigorritz zer diozu berriz?

Gorri da... *marimandona*, puntu *iluminatu* bat dauka, *Txurik* izate horiek kontrolatzen laguntzen du. *Gorrik* iniziatiba osoa darama *Handi*-rekin topo egin arte, handik aurrera *Txurik* bereganatzen du agintea. *Txuri* aldatu egiten da hortik aurrera.

Metamorfosia gertatzen da Txurirengan.

Bai, itxuraldaketa ematen da. Nik ez nuke, halere, izaera hori bizi nahiko, ez *Txurirena* bakarrik behintzat. *Gorri*ren gauza batzuk nahi nituzke, bere ausardia, esaterako. *Txuri* estimatzen dut, baina ni gehiago naiz *Gorri*, ekintzetara emana. *Txuri* ez da horrelakoa. *Handi*rena ere nahi nuke eduki, besteak beste, bere dirua —dirua ez da dena, baina bizitza errazten du— baina ez bakarrik hori noski, bere buruari eusteko gaitasuna gustatzen zait. Ahal banu, bakoitzaren zerbait hartu eta koktela egingo nuke. *Txuritik* eta *Handitik* baino gehiago *Gorritik* ipiniko nioke koktelari.

Zer moduz nobela idazten?

Ari nintzen, aurreratua jada, eta iazko Aste Sainduan pentsatu nuen baneukala nahiko gai,



“Gizarte honek gorroto du zahartzaroa, zuzenki gorroto ere. Eta horren errudun nagusia nire belaunaldia dela iruditzen zait”

akabera eman behar niola. *Handi* bezala banintz, bainu-etxe batera joango nintzakeen, baina ezin nuen. Ganbara bat utzi zidaten Donostian aste batez. Idaztera eman nituen ia egun osoak, tarteka erosketak egin eta bueltatxo bat ematen nuen, zinemara ere joan nintzen inoiz. Aita eta semea hemen geratu ziren: “Ez deitu, ez badago inor hiltzorian edo etxea sutan” esan nien. Han gorpuztu nuen nobela. Han asmatu nituen [txatal horiek ere paperara ekarri gabe geratu dira tiraderan], han ikusi nuen nola bukatu. Etxeko inor zaindu gabe, bakarka.

Mariak ez dira pertsonaia bakar-rak. Hor dira Roman, *Txuriren* semea eta erraina ere. Laida eta Kalo. Horien bizipenak ez dituzu luzatu...

Bai, baina gustura gelditu naiz. Nik laburrerako joera daukat. Banaiz gauza, nik uste, beste pertsonaia horien inguruan diskurtso luzeagoak asmatzeko, baina kon-tatua nahikoa zela iruditu zitzai-dan, ez zela gehiago esan behar.

Nobelak baditu, gutxienez, bi une biragarriak. Nobela hau da, baina izan liteke beste bat. Edo ez?

Ez. Donostiako egonalditik etorri nintzenean esan nion gizonari: “Patricia Highsmith-en ukitua emango diot bukaerari”. Oso gustuko dudana idazlea. Bukatutakoan, haren misterio puntua eman nahi izan nion.

Ageri den mundua iraganaren eta geroaren artekoa izatea nahiko al zenuke?

Ez dakit. Baina etorkizuna bestela dator, ez dut dudarik egiten, pertsonaia hauek zentzu batean hori markatzen dute. Nire adinkideak 60 urte-ren bueltan gara, 10-15 urte falta zaizkigu horra ailegatzeko, baina aldaketa gauzatuko da.

3 Mariak nobela da ordea.

Fikzioa da, bistan da. Hau ez da soziologia liburua, ezta autolaguntza liburua ere. Baina sinesten baduzue, lortu dut. Ez badut lortu irakurleak sinestea, kale egin dut. Halere, zahartzaro berria datorrela ziur naiz. Ez da erraza adierazten, ez da gai landua. Niri gaiaz pentsatzen lagundu didaten liburuak eta artiku-luak badaude. Jendea ari da gaiaz pentsa-tzen. Lehen aipatu dudana jende multzo hori jubilatzen hasiko denean gaiaz asko idatzi eta mintzatuko da. ■

Komikia

Binetaz bineta bidaiatuz

Bidaiarien eta komiki zaleen neurrira egindako eskaintza berria jarri du salgai Lonely Planet-ek: komiki formatuko bidaia gida. Kutsu kultural handia duten edukiak topa daitezke, ibilbideetan oinarriturik eta ilustrazio originalek lagundurik.

UXUA LARRETXE

GAUR GAURKOZ gaztelaniazko hiru helmuga argitaratu dituzte *Ibilbideak* bildumapean: Erroma, Nueva York eta Brusela. Frantsesez berriz, honezkero badituzte sei liburu argitaratuak. Egitasmo berri hori posible egiteko Lonely Planet eta Casterman editorial handiek –bidaia gidetan eta komikietan adituak, hurrenez hurren– bat egin dute komikia eta bidaia-literatura uztartzeko xedearekin, hiri gida genero berria sortuz.

Testu egilearen eta marrazkilariaren arteko elkarlanak bidaiariari ikuspegi berria eskaintzen dio, ezusteko aholkuak emanez. “Gida tradizionaletak merkatuan posizio sendoa lortu ondoren, interes gehien sortzen duten helmugen berri emateko bestelako bideak jorratu nahi izan ditugu”, azaldu du Jordi Calm Lonely

Planet-ek Bartzelonan duen egoitzako langileak. Komiki egile ospetsuak –hala nola, François Schuiten, Miles Hyman eta Jacques Martin– eta bidaia-giden egileak dabilta soinez soin lanean horretarako.

Adur Larrea komiki egile bizkaitarrarentzat ekimena oso baikorra da, batez ere komiki zaleentzat. Dena den, ez du uste berrikuntza handia denik. “Egitasmo horren antzeko gidak lehenagotik ere argitaratuak izan dira, esaterako, Hugo Pratt-ek eginiko Veneziako gida Corto Maltesen ikuspegitik”. Asisko Urmeneta marrazkilari nafarrak bestelako aurrekari bat ere gehitu du, Jorge Amado-ren *Babía de Todos los Santos* liburua.

Hiria bestelako perspektiba batetik

“Hiri bakoitzaren bestelako ikuspegia eman nahi dugu, modu originalean eta ederrean aurkeztuta eta denen poltsikoetara egokitutako prezio batean”, azaldu du Calmek. Alderdi ezezagunen berri izango du irakurleak, beti ere hiriaren historiaren harira. “Hiria pausoz pauso deskubritu nahi duen bidaiariari zuzen-

dua dago, baita gida tradizionalak ematen duen oinarritzko informazioaz harago, alderdi kultural eta historikoetan sakondu nahi duen orori ere”.

Urmenetak dioenez, bi generoren sinbiosiak hirugarren bat sortzen du. Gainera, pertsona izatea baloratu beharreko beste alderdi bat dela uste du, bai eta duen praktikotasuna ere: “Bidaia-kaiera baino erabilgarriagoa da, eta ohiko

gida baino sortzaileagoa”. Ez du uste ohiko bidaia gidekin erkatuz gero argitalpen hori askoz ere subjektiboagoa denik, munduko bestelako gida guztiak ere partzialak direla argi baitu. Autore on batek egin lezakeen ikuspegi interbenitua beti interesgarriagoa dela gaineratu du, hiriaren gainera ustezko katalogo neutroa baino. Komiki egile nafarraren aburuz, kasu honetan behinik behin, eroslea jakitun da fikzioa prezioaren barruan dagoela.

Larrearen esanetan, hiriaren deskribapena komiki egilearen begiradak baldintzatzeak egiten du erakargarri ideia: “Komikia hein handi batean transgresiorako bidea da; horre-



Goikoa bezalako irudiak aurkituko ditu Miles Hymanek New Yorki buruz egin duen bidaia-komikia zabaltzen duenak.

taz baliatu behar da ohiko bidaia lekuak bestelako begiekin deskubritzeko”. Azken finean, komiki egilea ez da komiki egile soila, eta hortaz, gida horrek haren ikuspuntu subjektiboa edo pertsonala ezagutzeko bide ematen du. “Ziur naiz Jaques Tardi edo Goscinny batek Pariseko kale desberdinetatik eramango gintuzketela, taberna desberdinak erakutsiko lizkiguketela eta lagun desberdinak aurkeztuko”.

Merkatu berrien bila

Ilustrazioen kalitateak erakarrira ohiko erosleengana ez ezik, bestelako jendearengana ere iritsi nahi dute Lonely Planet-ekoek. Komiki zaleengana, esaterako. Bidaia liburuen sailean egotearekin batera komikien sailean ere presentzia izatea euren asmoen artean izango da, ziurrenik. Horren harira, Adur Larreak komikiaren aldeko apustu hori ongi etorria izango dela uste du, beste herrialde batzuetan ez bezala, gurean komikia gutxietsia dagoela pentsatzen baitu. “AEBetan eta Belgikan komikiak duen sona eta merkatua ikusirik ez da harritzekoa haiek izatea lehen gidak”.

Argitalpen berria hiriaren bestelako alderdi batzuk ezagutu nahi dituztenei zuzenduta ere badago –bigarren gida moduan–. Horren erakusle da Lonely Planet-eko Calmen iritziz gida berria izaten ari den arrakasta, bidaia-riak oro har oso ondo hartu baitute hiria aurkezteko modu berria.

Frantsesez egin bezala, gaztelaniaz argitaratuko dituzten hurrengo argitalpenak Marra-kech (Jacques Ferrandez-en ilustrazioekin), Venezia (Hugo Pratt) eta Florentziakoak (Nicolas de Crecy) izango direla aurreratu digu Lonely Planeteko langileak, baita une honetan Pragako komiki gidarekin lanean dihardutela ere.

“Komikia transgresiorako bidea da eta horretaz baliatu behar da ohiko bidaia lekuak bestelako begiekin deskubritzeko”

ADUR LARREA, KOMIKIGILEA

Larrea eta Urmeneta, komiki egileak izanik, gida erosiko luketen edo ez galdetu diegu. Larreak: “Zergatik ez! Agian Bruselako gidan Peeters-en lanetan arkitekturak eta paisaiak duten eragina topatuko nuke, batek daki!”. Urmenetak, berriz: “Formatu horren abantaila da komiki gida erosita ez dela zertan fisikoki mugitu behar, etxean goxo-goxo egonda bidaia daiteke eta”. Orain arte Europako hiri handiak izan dira bilduma berri horren jomuga, baina nork daki, agian egunen batean Lonely Planet-ekoek Euskal Herrian jarriko dute begia, eta Asisko Urmeneta edo Adur Larreaki emango diote gidako ilustrazioak egiteko ardura: “Horrelako eskaria jasoko banu, gogotik ekinen nioke lanari.

Hasteko, erredakzio kontseilu txipia osa nezake ideien biltzeko, eta ondoren, erakustera pasa. Festaz festakoak, Done Jakue ibilbideak, gorabehera parapolizialak, kirola, kontrabandoa, edo oro nahasia. Finean, aukera polita da Euskal Herria beste inon ez bezala agertzeko”. Euskal Herriko hiri bakoitzeko ilustrazioak nork egingo lituzkeen ere pentsatua du Urmenetak: Iruñekoa Zaldi Eroak; Gasteizkoa Agurtzane Villatek; Donostiakoa Dani Fanok, Antton Olariagak eta Mattinek; Bilbokoa Adur Larreak eta Pernan Goñik; Baionakoa Marko Armspachek; Donibane Garazikoa Irene Bordak; eta azkenik, Maulekoa Laure Gomezek.

Larrearentzat modu horretako gida bat izateak euskaldunok gure burua hobeto ezagutzeko aukera eman dezake, baina nahitaez bestelako gidetan agertzen ez diren Euskal Herriko txokoak eta pertsonen ezaugarriak agertu beharko lirakekeela uste du. Hori bai, esandakoari ñabardura bat ere gehitu dio: “Bidaia batean unerik ederrena inon ezer irakurri gabeko zerbait edo norbait topatzea da”. ■

Larrearentzat modu horretako gida bat izateak euskaldunok gure burua hobeto ezagutzeko aukera eman dezake, baina nahitaez bestelako gidetan agertzen ez diren Euskal Herriko txokoak eta pertsonen ezaugarriak agertu beharko lirakekeela uste du. Hori bai, esandakoari ñabardura bat ere gehitu dio: “Bidaia batean unerik ederrena inon ezer irakurri gabeko zerbait edo norbait topatzea da”. ■

Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)



943 453 588 · www.sigacus.com




1921-ETIK, CAMPOS-EK
HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU
DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI
ESKER, HEGALUZERI ONENA BILATZEN
DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU
GOZO BATEKIN GOZATZEKO.



Gure webgunean erosi: www.clubcampos.com

Liburuak

KRITIKA

*Jonasen ipuinak.*Juan Kruz Igerabide. Irudiak: Mikel Valverde.
Aizkorri. 225 orrialde. 19,95 euro.

Haur eta gazte literatura

Xabier Etxaniz Erle

Gozatzen Jonasekin

DUELA URTE BATZUK Igerabidek eta Valverdek pertsonaia berri bat aurkeztu zuten euskal letretan: Jonas haurtxoa, eta egile biek harritu egin gintuzten haur horrek nola zion beldurra hozkailu beldurtiari. Kontua da argumentu sinple eta original horretatik abiatuta oso istorio polita, berezia, hunkigarria, egin zutela eta horren ondorioz jaso zuten (barka, idazleak jaso zuen) Haur Literaturako Euskadi saria.

Jonas eta hozkailu beldurtia (1998) liburuaren ostean beste bost ipuin gehiago eskaini dizkigute Igerabidek eta Valverdek, azkena, 2007an, *Adio, Jonas* izenburuarekin. Urte hauetan Jonas heldutxoago egin da (haur bat izaten jarraitzen duen arren) eta haren kezken, larriuneen eta gogoeten lekuko izan gara. Horrela, gurasoen haserrealdiak ikusi ahal izan genituen, arreba txikia izateak sorrarazi zizkion buruhausteen lekuko izan ginen, ikusi genuen Jonas biziki desio zuen gauza bat lapurtzen edo gauetan ohean arazo oso potoloa zuela, baita “salto batean” amak sarri esaten duen bezala, gauzak egin daitezkeela baina baita egoerak korapilatu ere. Anekdotak edo gertakari xumeak dira liburu guztien haria, eta oso lengoia (idatzizko eta bisual) sinplea erabiltzen dute egileek irakurlea protagonistarekin identifika dadin. Eta, hain zuzen, elementu horietan –argumentuaren eta komunikatzeko lengoaiaren sinpletasunean– oinarritzen da liburu hauen arrakasta.

“Jonas hiru urteko mutikoa da”. Esaldi horrekin (8. orrialdea) hasten da liburu hau, eta berrehun orrialde geroago mutikoaren gogoeta batekin “Ez da hain erraza salto batean itzultzea” (221. orrialdean) amaitu; bi horien artean arestian aipaturiko abenturak, irtenaldi bitxiak, egoera hunkigarriak, tristeak edo barregarriak eta beste mila kontu azaltzen zaizkigu haur honekin gozatzeko.

Aurrekoetan ere aipatu izan da Mikel Valverderen lana, bilduma honetan –orain liburu honetan– ageri diren irudiek duten indarra dela eta. Ilustratzaile gasteiztarra komikiekin hasi zen eta hori nabaria da liburu honetako irudietan; pertsonaiaren presentzia, sentimendua, ikuspuntua... irudien bidez jasotzen baititugu oso modu lortuan; eta idatzian gertatzen den bezala, sinpletasun landuak oso komunikazio aberatsa lortzen du.

Jonasen ipuinak oparia da euskal irakurlearentzat. Istorio ederrak, ilustrazio lortuak, eta haurren nortasunean eta garapenean giroturiko kontakizun entretenigarriak. Lastima liburu honek amaiera ematea pertsonaiaren istorioei. Beste bat etorri bitartean, goza dezagun berriro Jonasekin. ■

2010ak euskal kulturari ekarri dionari begira

Jakin aldizkariaren 181. zenbakiak iaz euskal kulturak eman zuenari errepasoa egin nahi izan dio. Horretarako, euskaigintzako esparru ugartan lan egiten duten pertsonengana jo dute, hala nola, Paul Bilbao, Pantxo Etxegoin, Patxi Gaztelumendi, Ander Iturriotz, Xabier Mendiguren Bereziartu, Xabier Men-

diguren Elizegi, Fito Rodriguez, Allande Sokarros, Andres Urrutia eta Eguzki Urteaga. Bakoi-tzak artikulua bana paratu du aldizkarian eta euskal kulturari begiratzeko duten posizioak ugariak direnez, iritziak ere anitzak dira. Bestalde, Zelai Nikolasek zenbait gogoeta plazaratu ditu Euskal Herriak Europar Batasunean duen egituratzeaz. ■



Jakin 181.
Batzuen artean.
Jakin.
124 orrialde.
12 euro.

Hezkuntza gai ugari ‘Tantak’ aldizkarian

Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza aldizkaria da *Tantak* eta urtean bi zenbaki publikatu ohi ditu. 2010. urtearen amaierarekin batera eman zen argitara iazko bigarrena, eta besteak beste, honako artikulua biltzen ditu: Gema Lasartek –ARGIako irakurleek ondo ezagutzen dituzue haren literatur kritikak– irakurriaren ulermenaren zailtasunak aztertu ditu bigarren hezkuntzan; Julia Ibarrek testu liburuetan ekologiaz zabaltzen diren ideiak izan ditu ardatz; Txema Ramirez de la Piscinak ikus-entzunezko alfabetizazioaren indar-guneak eta gabeziak ikertu ditu Euskal Herriko testuinguruan; eta Eguzki Urteagak unibertsitateko ikasleen profilaz idatzi du. ■



Tantak.
Batzuen artean.
EHU.
119 orrialde.
10 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Amaraunak.
Xarma.
Autoekoizpena.
Iraupena: 43'57".
10 euro.

Kantak barru-barrukoak direnean, beti heltzen dira

BEIZAMA, Ondarroa, Berriz eta Donostiako kideak dituen talde hau luzaroan egindako lanaren fruitua jasotzen ari da. Iaz lan hau kaleratu zuten eta zuzenekoek emandako izen onak eta irabazi berri duten Danbaka musika lehiaketak lagunduta, kontzertuak eman eta eman dabilta aspaldi honetan. Igartzen da taldekideak ez direla hasiberriak; ezin ulertu, bestela, agertoki gainean erakusten dituzten intentsitatea eta trebezia. Ez hori bakarrik, euskaraz abestutako

hamabi kantetan gai dira Kuraiaren urgentzia daukan rock gitarreroa, metalaren hondeamakina eta post-hardcorearen intentsitatearekin jolasteko; eta horri, gainera, bi ahotsetara abestutako, xuxurlatutako edo oihukatutako melodiak zein erritmo desberdinak gehitze. Hitzak sentikorrak, borrokalariak eta sinesgarriak dira, barru-barrukoak.

www.myspace.com/xarmamusika

Itsaso Gutierrez - Xarma

«Sinisten dugunagatik borrokatzen askeagoak garela iruditzen zait»

“Uko egin gabe bizitzaren xarma sentitzea”. Zein da zuentzat bizitzaren xarma?

Bizitzaren xarma bizirik gaudela sentitzea da. Eguneke gauza txikiekin gozatzen ikastea, gure akatsetatik ikasten aurrera egitea, gure buruarengan siniste... Bakoitzak bere burua aztertu, ulertu eta sentitzeko beldurrez bizi gara eta horrek milaka ate ixten digu. Nire ustez, jarreraren dago sekretu bakarra. Zoriak gure alde egiten ez duenean ere zorionekoak gara, bizirik gaudelako. Zertarako horri uko egin?

Disko honek asko dauka zulotik irten eta gogor borrokatzetik...

Bai. Haserre gaude. Euskal Herrian justiziaren gidaritzapean gertatzen diren injustiziekin haserre. Eta musika ideiak kaleratzeko baliabidea eta haserre agertzeko errekurso ezin hobea

dugulako, egiten ditugu kantak halakoak.

“Ametsak gorde nahi ditugu poltsiko apurtuetan, alferrikako lana dela dirudien arren, ahalegin hutsak ematen duen indarra sentitzearren”. Borroka egite hutsa bada bizirik zauden seinale?

Bai. Sinisten dugunagatik borrokatzen askeagoak garela iruditzen zait. Behintzat libre zaude; libre zure kontzientziarekin, zure buruarekin.

Bakoitzak bere baloreak eta printzipioak eraiki eta defendatzen nahikoa lan dugu. Ez da erraza koherente jokatzela.

Danbaka lehiaketa irabazi berri duzue. Nolako diskoa prestatzeko asmoa duzue?

Kanten zirriborro nahikotxo ditugu jada. Elkarrengandik asko ikasi dugu, eta jakin badakigu zein kantak funtzionatuko duen eta zeinek ez. Ilusio handiarekin gaude eta sormen lanetan buru belarri aritzeko prest. Oraingoan ideiak argiago ditugu. Taldeak berezko nortasuna hartu duela uste dugu. Asmoa da disko hau gogorragoa izatea.

Zuzeneko guztiak azkenean balitz bezala bizi dituzue.

Bai. Musika barneak askatzeko baliabidea dugu, eta lehen akordetik azken erritmoraino biziki sentitzen saiatzen gara. ■



Ezpalak

JON TORNER

Madrilgo Beti Jai frontoia, Interes Kulturalako Ondasun



MADRILGO (Espainia) Beti Jai frontoia Interes Kulturalako Ondasun izendatu du Madrilgo Komunitateko Gobernu Kontseiluak,

monumentu kategorian. XIX. mendean Madril en zeuden 30 pilotalekueetatik zutik dagoen bakarra da Beti Jai, argazkian ikus daitekeen moduan, nahikoa hondatuta dagoen arren. Interes Kulturalako Ondasun izendatuta, eraikina eraberritu eta hobe zaintzea desio dute, bide batez *pelotazo* urbanistikoari ateak ixtearekin batera. 1894ko apirilaren 29an inauguratua, ospe handia lortu zuen garai horretan. 1919an itxi zuten, frontoi estalien modak, apustuen debekuak eta beste kirol ikuskizun batzuen arrakastak bultzatuta.

1936ko gerra osteko kartzelaratuak marrazkiak Donostian

PEDRO ANTEQUERA (1975ean hil zen) eta David Alvarez (1940an fusilatu zuten) marrazkilaria eta karikaturista ospetsuak izan ziren Errepublikara garaian eta kartzelaratuak Frankismoaren urteetan. Marrazten jarraitu zuten biek espetxe barruan eta orain lan horiek berreskuratu dituzte Koldo Mitxelena liburutegian egindako erakusketa batean. 50 lan horiek gaurtik martxoaren 12ra bitarte ikusgai izango dira.

‘Txiki’ fusilatzeko erabilitako sei bala, Lazkaoko beneditarretan

JON PAREDES MANOT ‘TXIKI’ (1954-1975) fusilatzeko Francisco Franco diktadorearen polizia erabilitako 6 bala Lazkaoko beneditarren artxibategian gordeko dituzte. Txiki fusilatu zutenetik 35 urte igaro dira, hamabi tiro bota zizkieten eta horietako hamaikak jo zuten. Orduz geroztik, balak Marc Palmes eta Magda Oranich abokatuen esku zeuden, fusilamenduaren lekuko izan zirenen eskutik jasota.

Info 7 irratiak 5 urte bete zituen urtarrilaren 27an. Urteurren festa otsailaren 19an egingo dute Hernanin (www.info7.com).

Pako Aristiren *Azken neuronaren beriotza* eta Xabier Lopez Askasibarren *Piztu gabeko zigarroa* obrek irabazi dute *ex aequo*, Cafe Bilbao teatro laburreko saria. Literaturan maiz jorratu den gai batez, “errutasun faltsuaz” idatzi du Aristik. Lopez Askasibarrek, berriz, “lan antidramatikoa” ondu du. Bakarrizketa biren bidez, Edipo eta Jokasta pertsonaia mitikoen arteko topaketa kontatu du

‘Sinde Legea’ izenez ezagunagoa den Ekonomia Iraunkorraren Legea aurrera atera ahal izango du Espainiako Gobernuak, urtarrilaren 24an epea bukatu baino lau ordu lehenago PSOE, PP eta CIU alderdiek Senatuan lortutako akordioari esker. Interneteko deskargen aurka egin nahi duen legeari zuzenketa bateratuak aurkeztu zizkieten alderdiek: hala, egile eskubiak dituzten edukiak baimenik gabe eskaintzen dituzten webguneak ixteko “berme judiziala” indartu dutela diote sinatzaileek, horretarako epailearen aurretiazko baimena beharko baita. Jabetza Intelektualaren Batzordea sortzea ere berretsi du akordioak: Kultura Ministerioaren menpekoea izango da eta webguneen aurkako salaketak aztertuko ditu.



● **Mikel Gurrea zinemagileak ARGIA.com-en:** «Esperimentiarekin gauzak askoz hobeto egiten dira eta hori argi geratzen da guztietan. Izan ere, zinema diru gutxiarekin egitea da, agian, herri bateko jaiak antolatzea baino 2.000 bider nekezagoa, arazo txiki eta oso handiak etortzen baitzaizkizu (...) Dirua aitzakia da, oso beharrezkoa da baina lortu behar bada lortuko da. Behar bada urte batean egin beharrean bi urtetan altxatuko duzu proiektu bat, baino indarra edukitzea eta gogoia izatea, hori da inportantea».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

MIKEL GARCIA

Elur-bola

BI MOTATAKO SARIAK daudela irakurri nion Mauro Entrialgo komikilariari bere zintetako batean: batetik saritua goratzeko eta ezagun(ago) egiteko ematen direnak, eta bestetik saria ematen duen jaialdia bera goratzeko eta ezagun(ago) egiteko ematen direnak –bestela nolatan Donostia Saria Richard Gere edo Julia Roberts-i?–.

Mundu korapilatsua da sariena. Zeinek, zergatik, nori, nola... ematen dituzten sariak, kasuan kasuko gogoeta kritiko-maliziozosa eskatzen duen afera da, baina elur-bola efektua ageriko fenomeno da trofeorako lehian: diruak diru gehiago erakartzen duen moduan, zenbat eta jaialdi gehiagotan aritu –eta saritu–, orduan eta handiagoa da beste jaialditan parte hartzeko –eta irabazteko– aukera... errekorren Guinness saria lortzeraino. Bai, hala gertatu zaio Lucas Figueroa argentinarren *Porque hay cosas que nunca se olvidan* (porquehaycosasquenuncaseolvidan.com) film laburrari. Jaialdiz jaialdi ibili da, eta 300 garaikur inguru eskuratu ostean, historiako labur sarituenaren Guinness saria eman diote. Eta ondo dago ume italiar futbolzale batzuen istorio hau; bizilagunak –baloi ostikoez nazkatuta dagoen emakume zaharrak– baloia zulatuko die eta mendekua prestatuko dute haurrek. Ondo dago, bai, baina ez historiako sari gehien merezi izateko adina. Esango nuke –publizitate subliminala eginez, bide batez– ARGIaren webgunean bertan labur hobeak aurki ditzakezula.

Euskal zinemagile ezagun batek duela gutxi aitortu zidan ez dagoela ziur jaialdiek bere film laburrak hautatzen ote dituzten onak direlako, edo dagoeneko izen bat duelako. Bietatik izango da, seguruen, egilearen itzala luzea baita edozein obratan, eta krudela da zirkuitua: betikoak betikotzen eta hauspotzen ditu, jaialdi batetik bestera, eta kanpoan uzten du gurpilean sartzea lortzen ez duena. Zeinek zioen saria irabaztea ezetz, maila gorenean mantentzea zela zaiena? Lucas Figueroa oraindik harrituta dago Guinnessarekin: “Arraroa da, sari bat eman didate sariak jasotzeagatik”. Eta handituz doa elur-bola. ■



Porque hay cosas que nunca se olvidan
film laburreko eszena.

Vitoria-Gasteiz

Gasteizen euskarazko
hauek ez galdu:

ATARIA

- **Bidala naturalistei buruzko hitzaldia**
Otsailak 17, 19:00.
- **Hezeguneen Nazioarteko Eguna**
Haurrentzako jarduerak.
Otsailak 6, 10:00-14:00 eta 16:00-19:00.
- **Baso Igel jauzkaria ikusteko gaueko bisita**
Otsailak 11, 19:00-21:00.

MONTEHERMOSO

- **BESTE INAGURAZIO BAT**
Familiarentzako jarduerak. Otsailak 12, 18:00-19:30.
Erakusketa tailerra, bisita... Bapatean zirko Taldea.
- **MATINÉ (haur eta gazteentzako zinema)**
Noémie. Otsailak 13, 11:15.
Abeltzainaren alaba. Otsailak 27, 11:15.

GOZATU EUSKARAZ LIBURUTEGIETAN

Gonbit-txartelak astebete lehenago.

ARRIAGA

- **Sakanako ihoteak**
Otsailak 28, 19:00. Bideo-dokum. Gazte eta helduak.

JUDIMENDI

- **Lur eta Ortziaren artean. Euskal mitologia**
Otsailak 9, 18:30. Hitzaldia. Gazte eta helduak.
- **Inauterietako makillaje efektu bereziak**
Otsailak 26, 11:00. Lantegia. Gazte eta helduak.

IPARRALDE

- **Himalaya ezezaguna**
Otsailak 16, 19:00. Hitzaldi-proiek. Gazte eta helduak.
- **Kimika eginez**
Otsailak 19, 11:00. Lantegia. Adina: 6-12.

PILAR

- **Inauterietako makillaje efektu bereziak**
Martxoak 1, 18:00 Lantegia. Gazte eta helduak.

ABETXUKO

- **Galaxietako liburutegia. Lantegia**
Otsailak 12, 11:00 (adina 4-6); 12:00 (adina 7-9).
- **Bi azeritxo estu eta larri**
Otsailak 24, 18:00. Lantegia. Adina: 4-8.

IBAIONDO

- **Telo: harresian kontatuko dizut. Txotxongiloak**
Otsailak 8, 17:30 (adina: 3-5) eta 18:30 (adina: 6-8).
- **NURekin topaketa**
Martxoak 1, 19:00. Adina: 7-12.

LAKUA

- **Bi azeritxo estu eta larri**
Otsailak 22, 18:00. Lantegia. Adina: 4-8.

**Etorri eta gozatu
gurekin!**




Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak



Kike Amonarizen umorea

Babiru



Gazte alemaniarra Donostiako musika denda ezagun batera sartu da:

– Egun on! Nik nahi disko bat, Babiru-ren abestia ikasi nahi nik.

Bezeroa euskaraz hitz egiteko egiten ari den ahaleginaz jabeturik, dendariak:

– Babiru? Ez dut uste horrela-

korik dagoenik, seguru zaude izenarekin?

– Bai, bai... Euskaltegian denek jakin Babiru, eta joan den astean sagardotegian ere baita.

–Eta doinua edo, kantatzerik bai?

Eta gazte alemaniarrek:

– Bai, noski! Babiru la! Babiru la! Bosei zapi! Bosei zapi!...

Soluzioa

	O	G																						
	B	I	L	U	Z																			
	N	O	R	I																				
	M	U	R	R	U		S																	
	T		U	R	K	I	L	A																
	A	S	A	T			A	D	A	G	I	O												
			T	X	A	R		K	A	L	A	M	U											
	B	E	H	A	K	E	T	A		A	K	U	R	A										
	H	E	G	A	L	A	B	U		T	A	K												
	M	I	R	A	Z		K	E	X	A	T	U												
	Z	E		I	S	O		U	K	I	T	Z	E											
	P	A	I	R	A	B	I	D	E		D	U	N	A										



Bazen behin...

Mahai-jolasa

4 ZAILTASUN MAILA

- Hasiberriak
- Jarraitzaileak
- Adituak
- Profesionalak

6+

Galdera-erantzunak
bost ataletan banatuta:

- Zirkulazio-aparatua
- Nerbio-sistema
- Digestio-aparatua
- Inmunitate-sistema
- Gaixotasunak

bizitza

2.200 galdera giza gorputzari buruz



39€

Harpidedunentzat

35€

Eskaerak: 943 36 86 61
info@luditoys.com

Ludi**toys**

www.luditoys.com

**"Egin jolas giza gorputzari buruz
beti jakin nahi izan duzuna ikasiz"**

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Gerrek berotegi-efektua moteldu dezaketela dio ikerketa batek

AZKEN URTEOTAN hainbat zientzialari gerren eta klima-aldaketen arteko erlazioak topatu nahian aritu dira.

2007an egindako azterketa baten arabera, antzinako Txinan gertatutako hamabost gerra handietatik hamabitan gerra aurreko aroa hotza izan zen. Aro hotzek elikagai eskasia eragin zuten eta ondorioz

jendarteetan arazoak eta egonezinak agertu eta inbasioen aurrean ahuldu egin ziren. Berriki *Science* aldizkarian argitaratutako emandako artikulua batean, Erromatar Inperioaren hondortzea klimak nekazari-tzan eragindako kalteen ondorioa izan zela adierazten da.

Baina posible al da alderantzizko bidea egitea, hau da, posible al da gizakien arteko gerrek kliman eragina izatea?



Hildako asko, zuhaitz gehiago, karbono gutxiago

AEBetako Carnegie Zientzi Institutuko Julia Pongratz ikerlariak baietz dio. Bere iritziz, populazioaren hazkundearen edo jaitsieraren eta zuhaitz-kopuruaren jaitsieraren edo hazkundearen artean erlazio zuzena dago: guda gogor baten ondorioz eremu bateko populazioa asko txikitzen bada, zuhaitz-kopurua asko hazten da. Horiek karbono dioxido gehiago xurgatzen dute eta berotegi-efektua moteldu egiten da.

Pongratz-ek K.a. 800. urtetik gaur arteko landaredi-mapen eboluzioa aztertu du, eta oso datu esanguratsuak lortu ditu. 1200-1380 urte-tartean mongolek Asian egindako inbasioan hamabost milioi pertsona hil zirela uste da; zuhaitzik ez zegoen hainbat lekutan basoak sortu ziren. Horren ondorioz 700 milioi tona karbono dioxido xurgatu omen ziren, hau da, egun urtebete gasolina errez sortzen den kopurua. 1519 eta 1700 bitartean Amerikan bertako populazioa akabatu zenean ere basoek hazkunde handia izan zuten; hura, ordea, ez zen gerrate motzetan gertatu.

Hala ere, oso garbi adierazi du Pongratzek gizakiak historian eragindako deforestazioa askoz ere handiagoa eta gogorragoa izan dela eta izaten ari dela gerrek eragindako "lasaitua" baino.

Marrazoak, daltonikoak

Marrazoak, zenbait espezie behintzat, harrapari beldurgarriak dira, eta ez bakarrik filmetan. Orain gutxi, albistegietan, marrazoak Australian hildako surflari baten berri tamalgarria eman ziguten. Australian bertan egindako ikerketa batean hamazazpi marrazo-espezie aztertu dituzte, eta baita ondorio harrigarria atera ere: marrazoak daltonikoak dira.

<http://ttiki.com/22370> (Frantsesez)

Artseniko kutsadura Vietnamen

Hanoi inguruko zazpi milioi biztanle eta Bangla Desh-eko beste hainbeste, gutxienez, artsenikoarekin kutsatzen ari dira. Lurrazpiko uretan topatu dute artsenikoa, eta nazioartean onartutakoa baino bost aldiz gehiago du aipatu estatuetan ur edangarriak.

<http://ttiki.com/22371> (Frantsesez)

Migrainen eta ahalmen intelektualaren arteko harremana

Buruko mina gure jendartearen hedatuta dagoen gaitza da. Jakina da migrainak dituzten pertsonak ezertarako gauza ez direla gaitza jasaten ari diren unean. Baina epe luzean migrainek kalte mentala sor al dezakete? Ikerlari frantziar talde batek ezetz dio.

<http://ttiki.com/22372> (Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Zuhaitza, berez, gauza ederra bada, are ederragoa Erriberako paisaje

gorrituetan egiten dituen mesedeengatik. Cabanillasko honako hauek zurzuriak direla uste dut (edo "zirela" esan behar nuke?). Itzaltoki, txorileku, begien gozagarri... eta, endemas, ondoko pabilioi zatarron ezkutagarri. Biziko ote dira, Jakoba? Eskerrik asko.

Martin Rezola (Gasteiz).



MARTIN REZOLA

Iepa Martin! Zurzuriok zurzuri piramidalak dira, *Populus alba* "Boleana" edo *Populus alba* var. *pyramidalis* Bunge.

Behe-behetik adarrak ematen dituzte eta altzifreen tankeran behetik goraino adar eta hostoz jantzitako zuhaitz hestu tenteak izaten dira. Izaten dira, baldin eta bakean uzten badira. Hauei beheko adarrak moztu zizkieten lehen, zauriak hortxe dituzte enborretan, eta orain goiko krimen hori!

Zurzuriak egurra bera du, makala, biguna. Lepatuz egin dizkieten zauri horietan bistan den egurra honez gero usteltzen hasia da. Konturatzerako enborra hustua izango da eta hautsi eta erortzeko gai. Inguruan ibiliko direnentzat arriskua latza.

Nola biziko dira bada, Martin? Justu-justu iraun. Ebro aldeko lurralde erre haietan mesede besterik ez dute egingo, baina ezin ikusi zuhaitza osorik. Ezin eraman gu baino lirainago, galaiago, galantago, zuzenago, ederrago denik. Tentelak zer garen!

26.280

Barraskilo batek 26.280 orduz lo egin dezake. Txoko egokia topatu eta hiru urteko loaldian lasai asko

egongo da. Horrelako atsedenaldiak hartuta barraskilo arrunt bat hamabost urte bizi daitekeela ulertzea ez da zaila. Zailagoa da bizar-labana baten ertzetik nola arraio ibili daitekeen azaltzea.



ENMISOMBRERO.BLOGSPOT.COM

Ipinabartik erriora

IPINABARRENA munduan parerik ez duen kultura da. Mugarroa bai, mugarro modorro edo zuhaitz-motz soila bai, bere erabilera guztiz zabaldua da. Gidatutako, ipinitako abarrak dituzten zuhaitz ipinabarrak, ordea, gurean eta guregandik ingurutara zabaldua besterik ez dut ezagutzen. Leizeetako Madeleine garai-ko margoak eta sarobe edo saroe borobilekin batera, ipinabarrena gure kulturaren gailur garaienetakoa bat da. Beste kultura batzuen parean nor egiten gaituen horietakoa. Euskaldunon basoarena bezala gure itsasoaren historia, istorioak eta jakintza jaso eta merezi duten tokian jartzen ditugun eguna inoiz erdiesten badugu, egun batez behinik ur gaineko bitsetan ibiltzeko arrazoi sendoa izango dugu: ipinabarra.

Ipiñabar izena duen baserria bada bihozberatzen nauen eta baitan sekulako daramadan Nafarroa Garaiko Aranon. Urrutira gabe Ipiñabarsasi saila... Araitzeko Azkarateko herrian ere ba omen da Ipiñabar izeneko toki bat. Ez dut beste inon topatu ipinabarrari hain hede estuarekin uztarturiko toki izenik. Nafarroan, ipinabarren adar bereziak behar ziren itsasotik bertara. Hain bertara! Aranokoa omen itsasoa bistara duen herri-kasko nafar bakarra. Gipuzkoa eta Nafarroa arteko muga inguruko basoetan ipinabar dotoreak topatzea ez da zaila, oraindik zutik, bere bi adar nagusiak, zuzena eta zuokerra, tente, harro asko. Makina bat krakateko entzungo zen garai batean, egurrez lepo zen gurdiz motzari tiraka errietoako ontzioletara puntakoarekin jaisten ziren idi pareen tirriki-tarraka. Baso horietako magaletako zehar-zeharreko bideetan gurdien gurpilek eta leren aldeek arrastaren gaineko arrastan higatuz bernuzatutako erretenak ikusi besterik ez dago. Hori bai artea. Hor daude harkaitzari jandako gurdibideetan, gure aurrekoen lan ikaragarri haien lekuko, aspaldian isil.



Soropila ezartzea, zaintzea eta mantentzea
Inausketa lanak: landareak hazteko, mantentzeko eta berritzeko
Barrualdeak lorategi bihurtzea

Luberri Basolanak, S.L. • Axpe ibaiertza 28, beheko solairua, B12 lokala
Erandio (Bizkaia) • Mugikorra: 629 41 18 38 • Tel.: 944 671 713 • Faxa: 944 674 241
luberri@luberri.biz • www.luberri.biz

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Adarbakar urdinak Lockerren Ilargian



1835eko abuztuan, *The New York Sun* egunkarian Richard Adams Locke Ilargiari buruzko hainbat artikulua argitaratu zituen. Haren arabera, satelitean izaki bizidunak zeuden: gizaki hegodunak, adarbakar urdinak...

NEW YORK, 1835EKO ABUZTUAREN 25A. *The New York Sun* egunkariak titular ikusgarria argitaratu zuen azalean: "Sir John Herschel-ek aurkikuntza astronomiko bikainak egin ditu". Richard Adams Locke (1800-1871) egunkariko editoreak sinatutako artikuluen arabera, teleskopio berri bati esker astronomo britainiarrak Ilargiaren azala xehetasun osoz ikusteko aukera izan zuen eta bertan izaki bizidunak zeudela deskubritu zuen.

Abuztuaren 26ko eta 27ko artikuluetan Locke gure satelite naturalean aurkitutako bederatzi animalia espezie berriak deskribatu zituen, besteak beste, adarbakar urdinak eta oniszidea eta bola-zomorro handi modukoak, espezie lurtarrekoak ez bezala itzulika zebiltzanak.

Baina aurkikuntza gailena abuztuaren 28ko alerako utzi zuen: gizaki espezie bitxia ere agertu zen Herschelen teleskopioan. Locke *vespertilio-homo* edo *man-bat* izendatu zuen artikuluan, gizaki-saguzarra, alegia. Saguzar hegoak eta hanka txikiak zituzten gizaki horiek zafiro urdinez egindako tenplu baten inguruan biltzen omen ziren.

Hurrengo egunean ez zen Ilargiko bizidunei buruzko artikulurik argitaratu. Horren ordez, teleskopioa matxuratu zela zioen oharra ateratu zuten.

Herschelek kontu horiek guztiak gezurtatu arte, irakurle gehienek berri harrigarriak sinetsi zituzten. Eta batzuek egiazat jo zituzten geroago ere. Esaterako Francisco de Carrionek artikulua gaztelerara itzuli eta Espainian argitaratu zuen 1936an.

Herschel bere izena erabili zutelako kexatu zen arren, *The New York Sun* egunkariak ez zuen sekula onartu hura gezurra edo txantxa zela. Locke ere ez zuen sekula azalpenik eman. Hiriko gainerako egunkarietako ordezkariek gaizki pentsatu zuten: Lockeren asmoa egunkari gehiago saltzea zela. Egun, ordea, beste iritzi bat da nagusi: Locke lehenago ere New Yorkeko hiritarren fede itsua eta pentsamolde hertsia kritikatu izan zituen, eta horixe litzateke artikulua sortaren helburua.

Hala izan bazen, irakurleek ez zioten Lockeren ironiari antzeman, beharbada editorea zuzen zegoelako: herritarrak itxiak ziren.

Arrastoak

Burdelak, Kapera Sixtinoaren inspirazio iturri

MICHELANGELO BUONARROTTIK *stuf* izeneko masaje eta prostituzio etxeetara egiten zituen bisitak funtseko inspirazio iturria izan ziren Kapera Sixtinoko freskoak egiteko, Pisako Unibertsitateko Elena Lazzarini ikerlariaren arabera.

Margolan ezagunean ageri diren gorputz gihartsuen ereduak stufe horietako bezero nahiz prostitutuak omen ziren. Eta, beti ere Lazzariniren esanetan, freskoetako pertsonaia batzuk jarrera homosexual garbia dute.

Ikerlariak adierazi du inspiratzeko metodo hori ohikoa zela garai hartan, eta beste zenbait artistak ere, hala nola Da Vinci eta Bronzinok, lanaren aitzakian putetxeetara joateko ohitura omen zutela.



MICHELANGELO BUONARROTTI

Argia Sariak 2011

Alabastroak urrea balio du euskal komunikazioan

Gure jauregian txanpon ugari ez duzu aurkituko, baina bai urrea balio duten alabastrozko sariak. Gure jauregia txikia da, baina ez du dar-dar egiten trumoiak jotzen duenean. Gurean, kanpoan hotza denean, epeltasuna dakar barruko suak. Ogi goxoa jango duzu gure jauregian, Antton Mendizabal eskultoreak labetik atera berria.

URKO APAOLAZA

Argazkiak: Dani Blanco

ATXEGA JAUREGIAN izan da aurten ARGIA Sarien ospakizuna, Usurbilen. Ohikoa den bezala, bazkal aurreko *lunch* txikian mingaina dantzatzeko aukera izan zuen nahi zuenak; ondoren, mahai borobil dotoreetan eseri, eta otordu goxoaz gozatu zuten gonbidatu guztiek. Denetari-ko berriketaldia izan ziren: Tabakoaren Legea, aurreko eguneko greba, egoera politikoa, lehendakariak euskarari buruz esandakoak...

Postre eta kafearen bueltan, Olatz Korta ARGIAko kideak hasiera eman zion sari banaketari. Ordurako, argazkilariak, irrati esatariak, telebista kamerak, denak prest ziren sekretua bizkor aireratzeko. Aurretik orde, Xabier Letona zuzendariak euskal hedabide ez publiko-ek jasaten duten egoeraren analisi zorrotza egin zuen (hitzaldia 41. orrialdean), eta egoera horri elkarrekin erantzungo zutela iragarri. Irakurleak ARGIAren zenbaki honen hasieran aurkituko du hedabideok modu bateratuan argitaratutako editoriala, gure iritzia adieraziz.

Eta ondoren, hurrenez hurren, sariak banatu zituzten ARGIAko lan-kideek. Ahotsak.com-eko Asier Sarasuak eskerrak eman zizkien era-



2011ko ARGIA saridunak: Asier Sarasua eta Aintzane Agirrebeña (Ahotsak.com); Iker Treviño eta Natxo Escobar (Orain); Edurne Otamendi eta Ainhoa Beola (Donostiako Euskararen Udal Patronatua); Inge Mendioroz, Igone Fernandez, Agurtzane Gomez, Ane Irazu eta Ainara Vazquez (Gaztezu); Fermin Etxegoien (Ekaitz Perfektua).

kundeei proiektua finantzatzeagatik, baina batez ere euren ahozko lekukotasuna eskaini duten “3.014 hizlariei, proiektua guztiona delako”. *Gaztezu* aldizkariak esan zuen saria garrantzitsua dela aurrera begirako lanean “hauspoa” izango delako: “Taz hamar urte bete zituen gure aldizkariak, ez zen urte erraza izan, ez gara engainatuko: zailtasun

ekonomikoak izan genituen, murrizketak tarteko. Baina nolabait lortu dugu gure helburuak betetzea eta sari honek hamar urteko zikloa borobiltzen du” esan zuen Igone Fernandezek. *Nik ere euskaraz* publizitate kanpainarengatik jaso du Donostiako Udalak ARGIA Saria. Bertako ordezkari Ainhoa Beolak eskerrak eman zizkien ekimenean parte hartu duten 14.000 laguni: “Oraindik batzuei gogorazari behar zaie, 14.000 ez, askoz gehiago garelako euskaraz bizi nahi dugunak”. *Orain* telebista saioko Natxo Escobarrek azaldu zuen txarrak direla hizketan eta horregatik “irudia jarri nahi genion ondo hitz egiten duen jendeari, zerbait esateko duenari”, hori da saioaren funtsa. Bukatzeko, Fermin Etxegoienek, *Ekaitz Perfektua* irratsaioko gidariak, *Gaztea*-ko zuzendariak eskertu zituen batez ere: “Irrati komertzialean formula honetan sinetsi dutelako. *Ekaitz Perfektua* hori baita, musika guztiak batera ordubetea”.

Hala, Aitor Furundarenaren soinuak agurtu zituen 2011ko ARGIA Sariak, euskal komunikazioaren altxor txikia.



- (1): Gonbidatuei ongi etorria Usurbilgo Atxega jauregian. (2): Mikel Etxebeste, Edurne Otamendi eta Ainhoa Beola (Donostiako Euskararen Udal Patronatua), eta Aintzane Ezenarro (Aralar) (3): Juanmari Larrarte (EKT), Xabier Azanza (Euskarabidea), Berdaitz Goia (ARGIA), Markel Olano (Gipuzkoako ahaldun nagusia), Xabier Letona (ARGIA). (4): Ekhiñe Atorrasagasti (Info7). (5): *Gaztezuloko* kideak Luditoys enpresako Ivan Aizpuruarekin solasean. (6): Mikel Asurmendi ARGIAko kazetaria Fermin Etxegoiñi Irratia Saria emateko unean. (7): Bego Zuza (Luditoys-eko arduraduna), Jon Sarasua, Estibalitz Alkorta (Gipuzkoako Foru Aldundia).

Xabier Letona, ARGIAko zuzendaria:

Inoiz ez da beranduegi

“HISTORIAREN ESKUBIDEARI uko eginda bizia hobetuko lukeen lehenengo hizkuntza izanen litzateke euskara”.

Oso gomendagarria den *Autopsiarako frogak*, Koldo Izagireren liburutik hartutako pasarte da, eta aste honetan bertan euskararen gainean izandako adierazpen eta ikamikaren harira ekarri dut hona.

Adierazpenen egileak, jakin badaki ez luketela txarto interpretatuko esandakoetako batzuk esan ez balitu. Esandakoak, gainera, ez dira berriak eta 2008an Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetarako egin zen *Euskara Askatasunez* manifestuan inspiratzen dira.

Baina uste dut garrantzitsuena ez dela Patxi Lopez lehendakariak euskara eta askatasunari buruz esandakoa. Esan zuen baita ere bortizkeriaren amaierak bide berriak urratuko zituela eta horrek gauzak asko erraztuko dizkiola euskarari. Uste dut puntu hori dela garrantzitsuena, hor zentratu behar dugula guztiok eta, gainera, hor adostasun handia dagoela.

Gauza asko erraztuko dizkio euskarari eta baita ere euskal gizarteari oro har. Denok dakigu hori. Horrexegatik bultzatu behar dugu indar handiz euskal gizartean sortu den egoera berria. Lortu behar dugu hiltzea iraganeko kontua izatea, eta tortura, eta mehatxua, eta beste hainbat bortizkeria. Lortu behar dugu bake prozesu sendoa bideratzea. Lortu behar dugu berradiskidetze bideak irekitzea, horrek dituen ondorio guztiakin.

Eta hori guztia egin behar dugu krisi ekonomiko sakon bat kudeatzen dugun bitartean. Beste sektore batzuk bezala, euskarazko hedabide ez publikoen sektorea ere gogor astintzen ari den krisia da. Sinetsidazue, gure medio asko egoera oso estua igarotzen ari dira. Baina nola ez da hala izango ba erraldoiak ere



DANI BLANCO

ixten ari badira: 2010rekin bat itzali zen CNN+ Espainian, eta oraintsu jakin da Prisak, *El País* egunkaria egiten duen enpresak, 2.500 langile kaleratuko dituela. Nola demontre ez ditugu guk gorriak biziko?

Horrexegatik, euskarazko hedabide ez publikoek instituzioen sostengu handiagoa eskatuko dugu elkarrekin. Batu egin gara aldarrikapen hori egiteko, eta datorren astean entzungo duzue gure ahotsa modu bateratuan. Eta gizarteko beste sektore batzuk bezala, bagatxo aldarrikatzeraz gureak ere merezi duela konfidantza eta sostengu handiagoa. Hori funtsezkoa dela guretzat, baina baita euskararentzat eta euskal kulturarentzat ere.

Gauza asko egiten ari gara, prentsan, irratan, telebistan, Interneten... bitarteko gutxiarekin gauza ugari egiten ari gara. Bitarteko apur bat gehiagorekin askoz gehiago egingo genuke.

Badakit instituzioei beti iruditzen zaiela nahikoa sostengu ematen zaiugula, eta gainera batzuek pentsatu-

ko dute: “Begira hauek, beti eskean!”. Ez da orain zenbaki dantzan hasteko unea, baina gure erakundeetako aurrekontuak aztertuz gero eta konparaketak eginez gero, edozein euskaltzale zintzok ikus dezake gauza “inportante” batzuetan zenbat gastatzen den eta beste “inportante” batzuetan zenbat.

Klabea ez dago instituzioetan, gure sektorean dago, gure medioetan... baina une hone-

tan instituzioen sostengu handiagoa ere giltzarri da. ARGIAkook pozik gaude ekimen bateratu honetan hedabide asko elkartu garelako eta elkarlan horretan gure alea jartzen jarraituko dugu.

Gauza onak lortzeko inoiz ez da beranduegi. Inoiz ez da beranduegi bakea lortzeko, ezta berradiskidetzeko ere... ez instituzio eta euskarazko hedabideen arteko elkarlana areagotzeko... Edo, adibidez, inoiz ez da beranduegi pentsio justuen alde borrokatzeko... Eta, jakina, inoiz ez da beranduegi ARGIAren Interneteko albistegi berria ikusteko. Gure ibilbidean hau beste urrats bat da, sartu argia.com-era ikusi *Beranduegi* eta emaguzue zuen iritzia. ■

ARGIA Sariak banatu aurretik emandako bitzaldiaren pasarteak dira honakoak.

SOLOZABAL
*Eskura ezazu teorikoa 5 egundatan
edozein gidabaimenerako*

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390

www.solozabalautoeskolak.es

Euskarazko hedabide ez publikoek instituzioen sostengu handiagoa eskatuko dugu elkarrekin. Batu egin gara aldarrikapen hori egiteko

Teknologiari begira

Euskal komunikazioan diharduten aurtengo bost ARGIA saridunak ondorengoak dira: *Ekaitz Perfektua* irratsaioa, *Orain* telesaila, *Ahotsak.com* webgunea, *Nik ere euskaraz!* ekimena eta *Gaztezulo* aldizkaria. Etorkizunera begira denek teknologiaren eta, batez ere, Interneten garrantzia azpimarratu dute.

IRATI SARASUA

► Prentsa idatzia *Gaztezulo*

HAMAR URTE daramatzate gazteen kezka eta interesen inguruko aldizkaria kaleratzen. Hasiera haietan lanari ilusio handiarekin, baina betiko legez, ezjakintasunez ekin ziotela oroitzen dute *Gaztezulo*ko kideek. Urte berezia izan du aldizkariak hamargarren hau, eta saria urtea borobiltzeko gailurra izan dela diote. Euskal prentsari dagokionean, garrantzitsuen osasuntsu ikustea dela azaldu dute; horretarako gaur egun dauden komunikabideak ongi mantendu eta berriak sortzea izango litzateke onena.

Zenbait erakundek diru laguntzetan egindako murrizketa handiak ustekabea harrapatu du aldizkaria, horrek urtea aldrebestu eta gogorra bihurtu du, baina zorionez aurrera ateratzea lortu dute. *Gaztezulo*ko ondorengoa azaldu dio ARGIAri: “Gurea moduko hedabideentzat oso garrantzitsuak dira Foru Aldundia bezalako erakundeak laguntzak”. *Gaztezulo*ko zuzendari Rafa Perezek dio Internet erabakigarria izango dela etorkizunean. Beste hamar urte barru Interneten euren presentzia handiagoa izan behar lukeela diote; dena den, aldizkariak sexuaz edo musikaz informazioa ematen jarraituko du.

► Telebista *Orain*

ARTISTEN BIZITZA ezagutarazteko saioak, kultura jendearengana iristeko modu berria azaldu dio telebista-

ri. Protagonista bakarrak herritar arruntak dira, eta aldi berean artista txikiak ere badira. Euren bizitzetako ekintza garrantzitsuen lan prozesuak grabatu eta esperientziaren berri ematea du helburu saioak. ETB3ko arduradun Iñako Gurrutxagak ARGIAri azaldu dionez, proiektua ikusi zutenean interesgarria iruditu zitzairen eta horren aldeko apustu argia egin zuten, telebistara produktu guztiz berritzailea eraman asmoz.

Egunero, goizaldeko 00:30ean emititzen duten 15 minutu inguruko saioa da *Orain* eta jendeak harrera ona egin dio. Kaleko jendea prota-



Orain telebista saioa ETB3n emititzen da.

gonista izateak ematen dio xarma; jende ezagunaz gain alternatiboaren egunerokotasunak ere tokia duela adierazi dio ARGIAri Debolex film ekoizpen-etxeko arduradun Natxo Eskobarrek: “Jendeak oso gauza interesgarriak egiten ditu eta horiek azaltzen saiatzen gara”.

Sortzaileek diote “Interneteko sare sozialetatik, *atsegin dut* fenomenoik” hartu zutela ideia. Interneteko *feedback* hori telebistara eraman nahi izan dute, alegia, jendearen erantzuna une berean lortzea.

► Irratia *Ekaitz Perfektua*

ASTELEHENETIK ostegunera eta igandetan Euskadi Gaztean Fermin Etxegoienek gidaritzapean egiten den irratsaioa da *Ekaitz Perfektua*. Garai guztietako musikaz gozatzeko aukera eskaintzen du saioak eta gainera, irailaz geroztik igandetan saio monografikoak egiten jarraitzeaz gain, historiako 100 kantu onenen zerrenda osatzen ari da Etxegoien: “Urtetan mugarri izan diren disko eta inpaktua eragin duten horien inguruan aritunaiz”. Euskal musikaz galdetzean, “super komunikazioaren” garaian bizi garen arren, sortzen den musika askoz modu isolatuegoan agertzen dela dio saioaren gidariak.

80ko hamarkadan herri musika modernoak, beste arlo askotan bezala, sekulako goraldia izan zuen; musika kalean pizten ari zen, gazte giro komunitarioari esker. Hori guztia denborarekin desegin egin da neurri handi batean eta musikarekin ere antzeko zerbait gertatu da. Etxegoienek ondorengoa dio egungo egoeraz: “Musika erabat arrunt bilakatu da eta musikaren zentzu kontrakulturala ere bigundu egin da”. Halere, bere burua identifikatzeko ispiluaren beharra duela eta, uste du jendeak euskal musikari inoiz ez diola bizkarrik emango. Bide horretan irratia laguntza garrantzitsua dela azpimarratu du Etxegoienek. Izan ere, irratiko errepikapenen poderioz, entzuleen gustuetan eta aukeretan eragiten da.



Ezker-eskuin: Fermin Etxegoien, *Ekaitz perfektua* irratsaioaren gidaria; *Gaztezulo* aldizkariako lan taldea; ahotsak.com proiektuko elkarriketa unea.

Internet Ahotsak.com

2002. URTEAN SORTU zen proiektuak Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak bildu eta hedatu nahi ditu. Horretarako, euskara betidanik erabili duen adineko jendea elkarriketatzen ari dira. 2008an abian jarritako webguneak atal ugari ditu eta baita beste elkarte batzuetatik lortutako audioak ere. Baina gaur egun 2-4 minutu inguruko pasarteak dituzten bideoak dira funtsa. Etorkizunean era ezberdinetako edukiak gehitzeko asmoa dute.

Duela urte batzuk erakunde publikoek proiektuarekiko apustu garrantzitsua egin zuten. Lortutako diru laguntzek aurrera egin ahal izateko indarra eman dietela dio Aintzane Agirrebeña webguneako langileak: “Aurretik testigantza gutxiago lortzen genituen eta askoz mantsogo zihoan dena. Gure elkarriketatuak 80 urtetik gorako euskaldunak direla kontuan hartuta prezazko lana zen”. Elkarriketatutako pertsonen komunikatzeko modu nagusia ahozkoa izan da, ahozko-

sun horrek indarra galdu duela dirudi, eta komunikazio eredu hori berreskuratzeko eta testigantzak entzun, ikusi eta biltzeko sortutako webgunea da ahotsak.com.

Publizitatea Nik ere euskaraz

DONOSTIAKO EUSKARAREN Udal Patronatuak gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko egin duen argazki mosaikoaren kanpaina da, webgunearen bitartez berarekiko atxikimendua adierazten duten pertsonen argazkiekin osa-



Nik ere euskaraz ekimenaren kartela.

turikoa. Proiektua sortu zen unean iritzi kontrajarriak egon ziren; baikorrenen 5.000 parte hartzaile izatea espero zuten, eta ezkorrenen berriz, zenbaki hori urruti ikusten zuten. Emaitzek hasierako kopurua motz geratu zela erakutsi dute: 9.000 argazki igo dituzte, bakarkakoak, zein taldekakoak gehituta, 14.000 pertsona inguru izan dira gutxi gorabehera.

Hainbesteko inplikazioaren sekretua erabakia jendearen esku uztea izan daitekeela dio Udal Patronatuak, *Nik ere euskaraz* izenak hori azaltzen baitu. Ez da inongo inposizioa, norbere nahia edo izaera azaltzen du eta: “Azken finean zuk erabakitzen duzula dirudi, hau da, jendearen esku uzten da erabakia eta agian hori erabakigarria izan da”. Hasierako booma pasa zen arren, webgunearekin jarraitzeko asmoa dute eta baita etorkizunean sensibilizazio kanpaina gehiago egiteko ere. Datozen ekimenez galdetzean honakoa azaldu diote ARGIAri: “Oraindik ez dakigu nondik joko dugun, baina horrelako harrera izatea da gustatuko litzaigukeena”. ■



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.



Immigrazioa Euskal Herrian

Kohesio hizkuntza euskara izan dadin

Euskara, gaztelania eta frantses hiztunek baino, ehun hizkuntza inguru hitz egiten dituen jendarteak osatzen du Euskal Herria. Hizkuntza aniztasunean euskarak zein toki duen hausnartu nahi izan zuen Topaguneak joan den astean.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

ARGIA

TOPAGUNEAK, Euskara Elkartearen Federazioak, *Euskara aniztasunean* izenburupean egin zituen egun osoko jardunaldiak, urtarrilaren 25ean, Durangon (Bizkaia). Etorri berrien eta ez hain etorri berrien hizkuntzak, eta etxeakoak, nola kudeatu hausnartu zen. Kataluniatik heldu zen Carme Junyent, Grup d'Estudi de Llengües Amenaçades-eko lehendakaria. Euskal Herriko hizlariak ikerketak eta praktikak azaldu zituzten, eta bukatzeko Petra Elser, Agustin Unzurrunzaga eta Mario Zapata izan ziren mahai-inguruan (*Zer egin beharko litzateke euskaratik urrun bizi diren berritarrak (beren aniztasun osoa aintzat hartuz) euskarara burbiltzeko?*).

Hasteko, bukaerari helduko diogu. Agustin Unzurrunzaga SOS Arrazakeriako kide esperimentatuak Espainiako Estatutik kanpoko etorkinen erradiografia gordina egin zuen: Etorkinak lana egitera datoz, bizitza duina izatera. “Zuek hor eta gu hemen” gaude, egunero-ko bizitzan ez dago gatazkarik, ezta bereziki harremanik ere. Guztiok ez ditugu eskubide berak, haiek irregular daude; jendeak mesfidantzaz begiratzen die, eta gorrotora ere iritsi gara. Unzurrunzagaren ustez, Gipuzkoako etorkinek bi hizkuntza bereizten dituzte, bata handia, eta bestea, “telebistan entzuten den hori”. Gero, seme-alabak eskolara daramatzatenean, orduan bai,



Ezkerretik eskuinera, Petra Elser, Xabier Aierdi moderatzailea, Mario Zapata eta Agustin Unzurrunzaga.

orduan euskararekin egiten dute topo. Unzurrunzagak dio, bi norabidetako integrazioa hobesten dela, baina bere iritziz, sozialki ahulagoa denari eskatzen zaio eginahala, eta hark ahal duen moduko ahalegina egingo du.

Integrazioa, euskararik gabe?

Unzurrunzagaren mahaikide Mario Zapata soziologoa hasi zen esaten hausnarketa hau, alegia, euskararen tokia eta etorkinak, aspal-ditik datorren hausnarketa dela eta inpresio bat duela: zenbat kostatzen zaigun honetaz hitz egitea.

Galdera-erantzun labur dezente bota zuen Zapatak, hala nola: Migrazioek badute zerikusirik hizkuntz ordezkatzeko prozesuetan? Bai, ez da elementu behinena, baina hala da, eta horrek ez du esan nahi etorkinak errudun sentiarazi behar ditugunik. Beste galdera bat: Immigrazioa euskararen lehen mailako arazoa da? Lehentasunen artean izatekoa bada, baina baditugu arazo potoloagoak. Adibide bat eman zuen hori azaltzeko. Etorkin asko A ereduan matrikultatzen dituzte. Grabea da A eredu bera existitzea.

Zertan ari garen

Jardunaldietan teorizazio eta hausnarketez gain, kontu zehatzagoak ere izan ziren. Batetik, pare bat ikerketa lanen berri izan genuen, eta bestetik, beste pare bat ekintza zehatz azaldu zituzten. Julen Zabalo eta Iker Iraola EHUKo irakasleek *1950-1980 aldiko migrazioa eta euskara* izeneko ikerlana aurkeztu zuten. Egunean zehar, batik bat etorri berriei mintzatu ziren bai hizlariak eta baita entzuleak ere, baina aldiari konparazioak egin ziren aurreko migrazio aldiarekiko. EHUKo irakasleek migrazio aldi hartako hainbat herritar elkarriketatu eta haien euskararekiko pertzepzio ugari jaso dute.

Idoia Illarramendik (Emun) eta Joxean Amundarainek (Gipuzkoako Foru Aldundia) *Bizilagun berriak eta euskara Gipuzkoan* izeneko ikerlana aurkeztu zuten. Azken lau urtetan etorri diren hamazazpi laguni egin dizkiete elkarriketak. Besteren artean, galdetu diete ea nola izan duten euskararen berri eta gehienek adierazi dute kalean egin dutela topo euskararekin.

Emuneko Olatz Irizarrek *Hizkuntza Harrerarako Gida-liburu praktikoa* ezagutarazi zuen. Katalunian kalean den liburuxka da eta Emunek euskaratu eta Euskal Herriratu du. Jardunaldietan izan zuen tokia harreraren gaiak, hau da, iritsi berritan etorkinari harrera nork egiten dion eta ea hizkuntzaren errealitateaz azalpenik ematen zaion. Irizarrek aipatu zuen egoera soziolinguistikoaz, kontzienteki, ohartarazi behar zaiola etorri berriari.

Topagunearen beraren *Auzoko* egitasmoaren berri izan genuen bukatzeko. Sei herritan egin den esperientzia pilotua da, euskaratik urrun daudenak hurbiltzeko asmoz. Euskaraz dakitenek eta ez dakitenek osatzen dute taldea eta kohesio hizkuntza euskara da. Hiru hilabeteko proba herri batzuetan beste batzuetan baino hobeto ateratu da. Orioko adibidea Arantxa Arrillaga dinamizatzaileak azaldu zigun eta kontatzeko modukoa iruditu zaigu. Hemen tokirik ez dugunez, hurrengo zenbakiren batean patxadaz landuko dugu.

Hirugarren galdera. Integrazioaren izenean euskara bazterrean utziko dugu? Aurreko migrazio aldiari (Espainiatik etorriak) euskara ikasi gabe integratuta sentitzen ziren. Petra Elserri hitza eman aurretik Zapataren azken galdera-erantzuna: Aurreko migrazioaren lehen belaunaldikoek ikasi zuten euskara? Ez. Orain ere, lehen belaunaldiko asko ez dira euskaldunduko.

Elser euskaldun-alemanaren bi gogoeta labur ekarriko ditugu hona. Bata, guk ez diogu esan behar etorkinari zergatik ikasi behar duen euskara. Bestea, euskara ikasteko euskaltegiak bidaltzen dugu eta integratzeko Gobernuaren zerbitzuetara bideratzen dugu. Euskalgintzak eta euskal hiztunak badu ardura lan horretan.

Kontatu zurea eta galdetu berari

Carme Junyent sarri egoten da Kataluniako udaletako zinegotziekin. Udal dezentetan hizkuntzen inbentarioa egiten dute, alegia, herri horre-

"Integrazioaren izenean euskara bazterrean utziko dugu? Aurreko migrazio aldiari euskara ikasi gabe integratuta sentitzen ziren"

MARIO ZAPATA, SOZIOLOGOA

tako biztanleek hitz egiten dituzten hizkuntzak jasotzen dituzte. Helburua ez da zifra lan bat egitea, herri katalan horietara nondik etorri diren, etxeko hizkuntza zein duten... azken batean nor diren jakitea baizik. Besteari nor den galdetzeak, agian, bi norabidetako harremana sor dezake. Pakistandar denek urdua ez dutela hitz egiten ikasiko dugu horrela, eta marokoar batzuk arabiera baino amazigh hitz egiten dutela. Simetria bitxi baten berri eman zigun Junyentek: Kataluniako eskola batzuetan hautazko ikasgaia da amazigh hizkuntza gutxiagotua —besteak beste Marokoren menpe bizi diren tama-

zighek hitz egiten dute— eta Marokon ere hasi dira ikasgai gisa eskolan erakusten. Etorkin batzuek beraien hizkuntza gutxiagotuz gogoeta katalanaren harira egin dute. Junyenten ustez, nortasunak gehitzea errazagoa da kentzea baino, nortasunen bat ezabatuz gero, lehenago edo geroago, nonbaitetik aterako da. Etorkina ez dadila baztertuta sentitu. Gutxiespen horren adibide da, aditu katalanaren iritziz, gurera etorri denari hizkuntza menperatzailean hitz egitea. Borondate onez edo paternalismoaz egingo diogu gaztelaniaz, baina hark ondoko mezua jasoko du: "Katalana (edo euskara) ez da zuretzako".

Junyentek gauza bat dauka argi, ez dakiela metodo horrek zerbaitearako balioko digun, baina funtzionatu duen bestelako sistemarik ez omen dugu ezagutzen.

Beste batek ere hala esan zuen jardunaldiak hasi aurretik: gaur bakoitzak bere ekarpena egingo du, baina inork ez dauka irtenbiderik. ■

Babeslea: Erreterriako Udala



Tel.: 943 44 96 13
euskara@erreteria.net



ERRETERIAKO UDALA



UDAL EUSKALTEGIA

Miguel Zabaleta 14, 20100 Erreterria
Telf. 943 44 96 80 euskaltegi@erreteria.net

IV. Euskal Soziolinguistika Jardunaldia

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRAK otsailaren 18rako antolatu du IV. Jardunaldia. Hainbat galdera planteatu ditu Klusterrak hitzaldi, mahai-inguru eta elkarrizketen bidez hausnarketa egin asmoz. Horietako batzuk dira ondokoak: Zein dira euskal soziolinguistikan “irakurrienak”? Nondik elikatzen dira gure euskara teknikariak? Iturri berririk behar al da? Ba al dago maila teorikoan eztabaidarik gaur egun? Besteak beste, Mikel Zalbide *Diglosiaren purgatorioaz* arituko da, eta ondoren Iñaki Martinez de Luna, Paula Kasares eta Estibaliz

Amorrortuk erantzungo diote. Jordi Solé i Camardons soziolinguistak *Imaginació i educació sociolingüística a l'ensenyament* hitzaldia eskainiko du.

Otsail Ostegunak Donapaleun

ZABALIK ELKARTEAREN asmoa da euskaraz aritzeko guneak sortzea eta intentzio horrekin antolatu ditu beste behin Otsaileko Ostegunak. Aurtengoan, Joseba Kamio komunikazio enpresaburu adituak, Joana Etxart zuberotar ikerlari gazteak, Jakes Bortairu Foro Sozialeko eta Oldartzen kolektiboko kideak eta Patri Urkizu irakasleak parte hartu-

ko dute, otsaileko ostegunetan 20:30etik aurrera, Donapaleun.

Hizkuntz eskakizunak XX. mende hasieran

ANTXON NARBAIZAK *Hizkuntz eskakizuna Eibarko Hirian, 1900-1936* lana argitaratu du. XX. mende hasieran langileak hartzeko zer hizkuntz eskakizun egiten zituzten aztertu du Narbaizak eta adierazi nahi izan du nola garai batean ere euskararen alde batzuek borroka egin zuten.

BAHEA

Anjel Lertxundik *El Correo* esanak: “Gaztelaniaz gerta daitekeen moduan, euskaraz hitz egitea ez da ekintza naturala, ahalegin berezia eskatzen du, jarrera zehatza. Gure hizkuntzaren erabileraren ahuldade agerpenez harritzen denak, ondo egingo luke pentsatuko balu euskararen alde egitea ekintza kontzientea dela. Herritar elebakarrak (euskaraz jada ez dago horrelakorik) ez du aukeratzen, ez dago adi, ez du pentsatzen zer hitz egin ezagutzen ez duen batekin mintzatu behar duen bakoitzean. Elebidunari dagokionez, errazagoa da eredu elebakarrera jotzea, euskara jakin arren. Hitz egitea bezain gauza naturala ekintza kontziente bihurtzen da, eta horrela ez bada, erabilerak poliki-poliki azukrea kafean bezala urtzen da. Hain justu, herritar askoren ekintza kontziente horri esker mantentzen da bizirik euskara”.

Sue Swiftek esanak *karrajua.org*en jasoa: “Programetz, ikastaroen epe-mugez, azterketez eta ikasleen estresaz beterik dago EFLren (English as a Foreign Language, ingelesa atzerriko hizkuntza bezala irakastea) mundua, eta sarritan ahazten dugu hor gelatik kanpo mundua dagoela, eta gure ikasleek mundu horretara bideratu behar dutela hizkuntza”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Itun antisoziala eta antinazionala

Espainiako Gobernuak, CC00-UGT-k eta Patronalak, “Itun soziala” sinatu dute, eta horren bidez erreforma antisozial eta antinazionalak inposatuko dituzte Hego Euskal Herrian. Erreforma antisozialak dira, zeren-eta langileak, langabe eta prekarietatean dauden gazteak eta emakumeak dira krisi hau ordainduko dutenak; finantza sektoreak sortutako krisia da, eta sektore horrek pentsioena moduko erreformak egitea inposatu die zorretan dauden Estatuei, kreditua eta bere interes erakargarriak ordainduko dituztela ziurtatzeko. Gehiago lan egin beharko da pentsio baxuagoa jasotzeko. Erreforma antinazionalak dira, zeren-eta, Hego Euskal Herriaren kasuan, gure ekonomiaz eta babes sozialaren sistemaz erabakitzeke dugun nazio eskubidea erasotzen baitu. Daukagun dependentzia larriagotzen da horrela, Madriletik inposatzen digutelako, gureak diren instituzioetan kudeatu, hitzartu eta erabaki beharko litzatekeen pentsioen sistema.

CC00-UGT, “traidore” deituak izan dira, ez bakarrik beste sindikatuek, baita barne sektoreek ere, eta euren oinarriekin egin beharko dute topo. 65 urtetik gorako jubilazioa ez zutela onartuko zioten horiek, Gobernuaren eta merkatuen helburua “irentsi” dute: 67 urteak, negoziazioan puxtarriak bezala nahi adina salbuespen zenbatu badituzte ere. Beraiek, hortaz, izango dira etorkizuneko pentsionisten pobretzearen eta bazterketa sozialaren arduradun, bereziki emakumeena eta langabe edo prekarietatean dauden gazteena. EAJk itxura guztien arabera, “Itun soziala” babesten badu, ardurari hori bera izango du. Eta gainera, Euskal Herriaren nazio eraikuntzari begira, aukera galduko luke gure ekonomia, gure lan harremanen euskal markoa eta gure babes soziala kudeatuko litzuketen berezko erakundeak aldarrikatzen dituztenen ondoan jartzeko. Beraiek ere izango dute erreforma antisozial eta antinazional horien ardura, “Itun sozial” hori, euskaldun gehienentzako, antisoziala eta antinazionala delako.

Juan Mari Arregi

Berriz ere talka Nafarroan

EUSKO ALKARTASUNAK erabaki gaitz asko hartu ditu azken urteetan, baina NaBai-rekiko hartu behar izan duena horietako korapilotsuenetakoa izan da seguruenik, hau era batekoa hala bestekoa izan (kronika hau idatzi denean erabaki hori hartu gabe zegoen artean).

Aralarrek, EAJk eta independenteek emandako ultimatumak ataka estuan jarri du EA: edo Batasunaren ezker abertzalearekin edo Aralar eta jeltzaleen NaBai-rekin. Bere burua preziazten duen edozein alderdiri egin dakioken erronka gogorrenetakoa da.

EAKo zuzendaritza nagusiak argi bide du epe motz eta ertaineko bere bide estrategikoa. Horren lekuko egindako akordioak, bai ezker abertzalearekin sinatutakoa eta bai bi hauek Alternatibarekin berriki Gasteizen aurkeztutakoa. Argi du etorkizuneko ezkerreko gune soberanistaren aldeko apustua eta horren alde ari da buru belarri, eremu horretako indar nagusi den ezker abertzalearekin eskuz esku.

EAKo denek, baina, ez dute hori argi, bereziki Nafarroan, non NaBai dagoen eta honek egoera berezia sortzen duen. EAKo guztiek egon nahi dute NaBai-n, baina zuzendaritzak ezker abertzaleari ateak itxiko ez dizkion NaBai nahi du. Eta EAKo militanteen artean banaketa dago: ez dago garbi, baina badirudi asko direla ezker abertzalerik gabeko NaBai onartzeko prest daudenak. Uxue Barrios Iruñeko hautagaitzat aukeratzeko nazio zuzendaritzarekin izandako ika-mika da horren adierazleetako bat.

Azken finean, hainbat arazo maila ikusten dira talka honetan, gehienak egoera politiko berriak ekarriak eta beste batzuk alderdi desberdinek beraien artean ados-



Nafarroa Bai

tasunak bilatzeko beti dituzten ezintasunean sortuak.

NA-BAI, funtsean, oinarri hauen inguruan sortu zen: bat, biolentziaren erabilerarekiko arbuiztea, eta zehazki ETaren biolentzia; bi, Nafarroak bere izaera eta egoera politikoak ditu eta errealtate horrek bere egituraketa politiko berezia eskatzen du; hiru, UPNren maila guztietako autoritarismoari galga jarri behar zaio eta, ahal dela, ezkerreko baloreetan oinarritua alternatiba sortu.

Horrek arrakasta handia izan zuen Nafarroako abertzaleen artean eta NaBai-k ia 80.000 boto lortu zituen 2007ko udal eta foru hauteskundeetan. Jakina, horri lagundu zion baita ere ezker abertzalea legez kanpo egoteak eta esparru horretako botoemaile askok boto pragmatikoa eman zuela. Eta horrek guztiak ilusio handia sortu zuen Nafarroan, ez bakarrik abertzaleen artean, baita beste sektore batzuetan ere, besteak beste PSN eta NaBai gobernu aukera erdiestekotan egon zirelako.

Baina egoera asko aldatu da: batetik, NaBai-ren proiektu politikoa finkatzearen ondorioz, Batzarrek alde egin du eta hilabetetako liskarren ikuskizunak koalizioaren irudi eskasa utzi du; bestetik, *Zutik Euskal Herria*-k ekarri duen

guztia dago. Behin eta berriz esan da ETaren desagerpenak egoera politikoa aldatuko zuela eta bide horretan jarri izana hala dela erakusten ari da.

Funtsean, eta NaBai-ren sorrerako helburuei begiratuta, ez da erraz ulertzekoa Aralarrek, EAJk eta independente batzuk ezker abertzaleari jarritako betoa. Ezta ideologikoki eta pragmatikoki ere, are gutxiago egungo krisi egoeran: ezker abertzaleak eta Aralarrek ezkerrean kokatzen dute beren burua eta Nafarroako abertzaleen besorik sendoenak dira. Azken greba orokorra, esate batera, biek sostengatu dute, eta EAJk PSOeren pentsioen erreforma sostengatu du.

Arazo nagusiak, beraz, ez daude NaBai-ren espiritu eta oinarrietan, eta horien arabera gaitza da ulertzea ezker abertzaleak zergatik ez duen lekurik NaBai-n. Egungo arazo nagusienak beste batzuk bide dira. Batetik, ezkerreko indar abertzaleen arteko harreman txarretik datoz —bereziki Aralar eta Batasunaren artekoak—. Eta hor, bi indarrek lan handia egin beharko dute posizioak hurbiltzeko, biek dioten gisan, etorkizun hurbilean ezkerreko abertzaleen aliantza sendoa nahi badute. Bestetik, EAJ eta ezker abertzalearen lehia ere hor dago eta bakoitzak bere eremua gaurtik gogor borrokatzea erabaki du. Hortik NaBai-n elkarrekin egoteko betoa.

Eta, besteak beste, hor dira baita ere lege arazoak: une honetan ezker abertzalea legez kanpoko da eta ez dirudi alderdi berria ere legeztatuko zaionik. Borondate handiz eta denborarekin dena konpon liteke eta oraingoan ere hala izan zitekeen, baina denak adierazten du talka berri bat ikusiko dugula Nafarroako abertzaleen artean.

PELLO ZUBIRIA

Kristauak juduei zuhaitzak landatzen beduinoen lurretan

Israelen gehiengo juduak edozein aitzakia du on lurrak ebasteko bertan bizitzen mendeak daramatzaten jendeei.

Palestinarrei lurrak kendu eta bertan juduek baino sarbiderik ez duten herriak eraikitzeke lanak ezagunak dira, ez ordea bakarrak. Negeveko basamortuan bertako beduinoei lurrak ostuta, basoak landatzen dituzte.

JONATHAN COOK KAZETARIA DA Nazareth herrian bizi dena. 1965ean sorturiko ingelesa, 2001etik bizi da Israel barruko palestinarren hiriburuan, free-lance moduan argitaratuz lanak munduko hedabide askotan. Liburu garrantzitsuak ere baditu plazaratuak, azkena *Disappearing Palestine: Israel's experiments in human despair* (Palestina desagertaraztea: Israelen esperimentuak gizakien etsipenarekin).

Joan den abenduan Cookek sinatutako honako artikulua azaldu zen: “Jesus erreklutatu dute: God TVk Israeli laguntzen dio beduinoak menperatzen”. Kronika berari *Alternet* gunean honako izenburua ezarri diote: “Nola konbentzitu dituen God TV telebistak bere jarraitzaile ebanjelikoak Israelgo basamortuaren erdian milioi erdi zuhaitz landatzeko”.

Duela hamarkada gutxi kristau tradizionalistek judua etsaitzat zeukaten. Gure elizetan otoitz egiten zen Jainkoak judu zitalak bide onera bihur zitzaizkien. Gaztelaniazko formula zen: “*Por la conversión de los pérfidos judíos*”. Orain, ordea, zital, desleial eta salduak musulmanak ei dira, eta kristau kontserbadoreak eskutik helduta dabilta judu sionista gogorrekin. Horren adibidea da Jonathan Cookek kontatu duena.

Israelen mugen barruan dagoen

Negev basarmartuaren hiri nagusi Beershevatik kilometro gutxira honela dioten afitxa aurki daiteke bide bazterrean: “Jainkoaren Telebistaren Basoa. God TVren eskuza-baltasunari esker, milioi bat zuhaitz landare dago prest Israelgo lurretan aldatzeko eta Negeveraino ura eramateko bitartekoak ere bai”.

Opari horren laguntzaz dagoeneko landatu du milioi erdi baino gehiago Jewish National Fund erakundeak, Israelen basoak eta herri berriak —juduz osatuak, noski— sustatzen dituen nazioarteko erakunde sionistak.

God TV edo Jainkoaren Telebista kristau ebanjelikoek duela 15 urte sortu zuten Britainia Handian eta geroztik sekulako indarra hartu du. 2007an egoitza nagusia Jerusalemara eramanez, gaur munduan 500 milioi jenderengana iristen dela aldarrikatzen du. Satelite bidez barreiatzen du kristau ebanjelikoen mezua bost kontinenteetara.

Kristauok sinesten dute palestinarrei beren betiko lurrak kendu eta haietan juduak bizitzeko jartzeak azkartu egingo duela Jesus bigarren munduratzeko egunaren etorrera. Nazaretheko Jesus profetaren bigarren etorrera azken aldiaren gero eta gehiago aipatzen den kontua da, XXI. mende hasierako krisi anizkoitzak erlijioen irakurketa apokalipti-

Bedouin-Jewish Justice in Israel erakundeak Flickr zerbitzuan eskegi dituen irudietatik aukeratu dugu lerroon ondokoa. Urtarrilaren 16koa da eta bertan ikusten dira Al Arakib herrixkako biztanle beduino batzuk, haien eskubideen alde borrokatzen diren militante juduekin elkarlanean etxola txiki bat eraikitzen. Hamargarren ahaleginean ari dira, goiz horretan bertan Israelgo gobernuaren hondeamakinak birrindu baitizkie bederatzigarren aldiz eraikitakoak. Urtarrilaren 16ko liskarretan bost pertsona zauritu zituzten polizeiek balaz eta gas negarreragilez eta beste hamaika eraman atxilotuta. Lurralde okupatueta bizi diren palestinarrek ez bezala, Negeveko beduinoak israeldarrek dira, juduak adina. Aspalditik ari dira Tel Aviveko agintariak horiek beren antzina-ko eremuetatik kanporatzen, kokagune berrietan kontzentratuz. Orain basamortua oihaneztatzea asmatu dute xede berarekin.

koei loraldi berria ekarri dielako. Israelgo instituzioen eta kristau eliza ebanjeliko batzuen arteko elkarlana bide beretik sendotu da.

Baina Beersheva kasuan juduek zanpatu behar dituztenak ez dira palestinarrak, beduinoak baizik. Magreb eta Ekialde Hurbil osoan barrena kokaturik bizi dira Erdi Aroan Arabiar penintsulatik barreiatu ziren tribu beduinoak, duela gutxi arte basamortuetan eta abeltzaintzari emanak. Israelen ez dira 100.000 jendetara iristen... eta hala ere gehiegi dira, nonbait, Negeveko desertuan herri eta etxalde berriak eraikitzeke asmoak dituzten sionistentzako

Giristino sionistak

God TVren sortzaile Rory Alec-ek bere jainkoaren deia jaso omen zuen Israelen inbertitu zezan: “Pranta ezazu lurra nire Semearen itzulerarako”. Alecek zorrotz kunplitu du agindua, martxan jarri “Erein hazia Jainkoarentzako” kanpaina. Argudio eztabaidaekin bat dauka horretarako: “Nik esaten dizuet Jesus laister itzuliko dela!”. Milioika dira munduan hori sinetsita bizi direnak.

Arazoa da haziok erein eta landareok aldatzekotan, lur haietatik fueratu behar direla hamabost mende edo gehiago bertan daramaten artzain beduinoak. Horrela, Al-Arakib herrixka bederatzik aldiz birrindu



dute polizia eta ofiziale israeldarrek, bertako 350 herritarrak bortxaz eramanez Rahat herri berrira.

Antzeko operazioak burutzen dituzte egunero agintari juduek, Negeveko herri txikietan bizi diren 90.000 beduinoen kontra. Hauek ahal bezala egiten diete aurre txikizioei. Jonathan Cookek esplikatu duenez, “beduinoek aurre egiten diete, kexu baitira haienezako eraiki diren auzo berriak hiri-erreserbak direla, ekonomia mailan bezala egitura sozialean gizarteak zokoratuta bizimodu tristea baizik eskaintzen ez dutenak”.

Negev Coexistence Forum erakundetik beduinoen eskubideen alde saiatzen den Haia Noach-ek esan dio kazetariari: “Al-Arakibeko jen-

deok ez dute alde egin nahi, herria askotan txikitu dieten arren. Baina agintariek landatzen badute basoa hemen, herritarrek ez dute itzultzeko aukerarik izanen”.

Bestalde, beduinoak ohartzen dira beren lurretan baso berriak landatzea lehen urratsa dela, ondoren datozela judu komunitateen auzo eta herri berriak, legez aitortuak ez izan arren Tel Aviveko gobernuak babes-tu eta sustatzen dituenak.

Gaia Israelgo auzitegietan ere badago. Beduinoek eta beren aldekoek lortu nahi dute alde batetik beren herrixkekin egiten duten txikizioa geldiaraztea, eta bestetik azken urteotan sortu diren bizileku ilegalak batera edo bestera legezatztea.

Beduino gazte asko sortu da haien

gurasoak bortxaz eramanda sartu zituzten auzoetan. Eta hauetan bizimodu duina eduki ezin delakoan, asko berriro itzuli dira gurasoen lurretara. Eraikuntza ilegalak egin dituzten juduen alderantziz, beduinok oso zail daukate berenak legeztatzea.

Palestinarrei egunero egiten zaien lur ebasketak komunikabideetan oihartzun handirik izaten ez badu, beduinoen kontrako erasoez kasik ez da iristen informaziorik. Jonathan Cookea bezalako artikulu batekin gaiari hari-muturra aurkitu eta Interneten galdezka hasiz gero, orduan bai irakur daitezke albisteak. *Bedouin-Jewish Justice in Israel* gunean, adibidez, judu moderatuak saiatzen dira herritarron eskubideak defenditzen, auzitegietan bezala kalean defendituz eta informazioa zabalduz.

Aurrez aurre dauzkate Israelgo estatuaren aparatuak, mundu mailako judu erakunde nagusiak, eta hori guztia gutxi balitz, orain munduko kristau fundamentalistak. God TV katean ari direnak bezalako ebanjelikoak omen dira gogorrenetakoak beduinoekin eta batik bat palestinarrekin juduek inolako konponketarik lortu ez dezaten.

AEBetan Christians United for Israel (CUFI) erakundea lobbygingtzen ari da Israelen alde. Ez dio axola CIFI fundatu zuen John Hagee artzainak duela hamabost urte esan bazuen Hitlerrek Jainkoari lan zikina egin ziola, zeharka juduak Israela bideratu zituelako. Berdin dio, baldin eta urtean milaka turista kristau eramaten baldin badi-tu Lurralde Saindura. Sionismo kristaua ere bada. ■



ZINKUNEGI OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Mikel Irizar

Tribua hausnarrean

Aspaldi gabilta “ziklo amaiera” gora eta “golde aroa” behera. Han eta hemen nabari da tarteko helmugarren sindromea, alegia, belaunaldi batek —nireak— frankismoaren honddarretan hasitako etapa bete dugula eta beste berri bat hastear ote den. Eta euskaldunon tribua mapari begira jarri gara berriro, ea nondik jo aurrerantzean. Beti ere, biziraupena helburu.

NON GAUDEN. Iragan luze batetik gatoz, ikerkuntza lerro berrienen arabera *homo sapiens* zaharraren ondorengo zuzenak ere izan omen gaitzke. Eta asmatu dugu irauten, agian 35.000 urtez jakin izan dugu galerak onartzen funtsezkoena geroratzeko, abilak izan gara zailtasunak gaitzitzen.

Azken txanpa egin dugu ikastola eta euskaltegi, euskara plan eta hizkuntza politika, aldarri eta eraso artean. Inoizko esparru eta maila batzuk lortu ditugu euskararentzat, beste batzuk galtzen ari garen bitartean. Esango nuke oro har aurrera goazela, baina gero eta motelago. Zenbaitetan hain motel, gu baino indartsuagoen aldean atzean ari garela gelditzen. Hortik ziklo amaierak eta golde aroak.

TRESNA BERRIAK. Azken boladan, ordea, soinu berriak entzuten dira. Batek hitz egingo dizu hizkuntzen ekologiak eta bioaniztasunaz, eta tokiko hizkuntzari berez dagozkion eta eman behar zaizkion egitekoez. Besteak aipatuko dizu hizkuntzarekiko asertibitatea eta erakutsiko nola eutsi zure hizkuntza-hautuari errazegi amore eman gabe. Ondokoak kontatu digu hitzunen artean badela jendea armairutan gordeta, barne korapiloak askatu ezinean. Soziolinguistek ere ekarri dituzte esparru honetara lidergoa, erakargarritasuna, hegemonia, arnas gune eta beste hainbat kontzeptu interesgarri.



DANI BLANCO

Aro sinpleago batetik gatoz, aldagai gutxirekin jokatu izan dugu, pentsatuz indar guztia puntu batean jarrita Arkimedesen palankak mugituko zituela euskararen oztopo guztiak. Orain osagai gehiago hartzen ditu analisiak eta neurri horretan aberasten ari da. Zailtzen ere bai, osagai guztiak bateratu behar baitira, bakoitzari dagokion pisua emanda, gainera.

Aro sinpleago batetik gatoz, aldagai gutxirekin jokatu izan dugu, pentsatuz indar guztia puntu batean jarrita Arkimedesen palankak mugituko zituela euskararen oztopo guztiak. Orain osagai gehiago hartzen ditu analisiak eta neurri horretan aberasten ari da. Zailtzen ere bai, osagai guztiak bateratu behar baitira

HAUSNARKETA. Tribuaren auzune ezberdinetan sumatzen da etorkizunaz kezka eta biziraupenerako berrikuntza premia. Nik lan horretan topatu dut euskaldunon elkarrekin Topagunea, HUHEZI (Mondragon Unibertsitatea) fakultateko irakasle talde baten laguntzaz. Hausnarrean ari dira aspaldion, galdetu, jaso, eztabaidatu eta harilkatzen. Helburua da artikulazio eta diskurtso berria ematea euskal komunitateari, hurrengo etapan ere lor dezagun biziraupena.


Euskaldunon elkarteek hogeita bost urte inguruz egin duten ibilbidetan lorpen handiak eta aje galantak aurki daitezke. Eta ziklo amaierako une honetan elkarteok ere ahul daude, ipar eta metodo egokien faltan. Baina horrekin batera ardu eta grina berriak nabari zaizkio elkartearen federazioari. Horregatik, egindakoa modu kritikoan irakurtzen bada eta aldatu behar dena aderez aldatzen, txanpa indartsua egin daiteke berriro.

Izan ere, Topagunearen bueltan badira —bagara— 20.000 bazkide, 450 profesional eta 1.400 boluntario. Pertsona horiek guztiak egoki antolatuta sekulako hezurdura osa daiteke, gizarte zabalean eragin handia izan lezakeen tresna.

Prozesuaren ardatz den txosten mardul eta bikaina irakurri ahal izan dut egunotan, eta itxaropena piztu zait. Otsailaren 26an aztertuko da Bilbon, XXI. Mendeko Euskaldunon Elkartearen Kongresuan. Zu ere deitua zaude. Iraun dezagun. ■

ASTE HONETAKO

zozketa




Atxaspi Hotela

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Bittiria kalea, 24
Lesaka NAFARROA

www.atxaspi.com

1



Tarpoon Urpekaritza

2 harpidedunentzat
"Discover Scuba" saiorko
bina sarrera

Kirol portua, A lokala - 7
Getxo BIZKAIA

www.divetarpooon.com

2



Elaia

Glutenik ez duen kolorea
Gari Berasaluze

5 liburu opari

Txalaparta Argitaletxea

Navaz y Vides, 1
Tafalla NAFARROA

www.txalaparta.com

3



Pirritx, Porrotx eta Marimototx

Irrien lagunak +
Ongi etorri Pupu eta Lore
2 harpidedunentzat
DVD + CD bana

Katxiporreta Koop.E.

www.katxiporreta.com

4



Kirolaz Badakit

2 mahai jolas opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2261. Argia)

ATXASPI

- Rafael Gomez Urbiria (Donostia)

EUSKAL MUSEOA

- Joseba Landa luze Moraza (Gasteiz)
- Pake Garzia Konde (Elgoibar)
- Imanol Arluziaga Esnal (Donostia)
- Joxe Aizpurua Iruin (Hernani)

MUNDUKO IPUINAK

- Errenteriako Udal Euskaltegia (Errenteria)
- Juan Ignacio Elozegi Aldasoro (Berastegi)

KORRONTZI

- Miren Begoña Goikoetxea Azkue (Getaria)
- Amara Berri Aek Euskaltegia (Donostia)
- Miren Olabarria Arana (Bergara)

TXALAPARTA, Amonatxoak

- Jose Maria Betelu Azurmendi (Elgoibar)
- Barrutia Ikastetxea (Gasteiz)
- M. Jesus Barrenetxea Azkunaga (Galdakao)
- Arantxa Aizpurua Arruti (Zarautz)
- Mikel Garmendia Aizpuru (Bilbo)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea

beranduegi

ARGIAren albistegia interneten

Beranduegi gatoz, telezaborrak hartu dizu egongela.
Txutxumutxu, pilota partidu, reallity show eta informazio
transgenikoek burmuina kutsatzen dizute.

Bai, guri ere bai.

Horregatik erabaki dugu ARGIA n, astean behin
Internetarako propio pentsatutako telebista saio bat
egitea. Euskarazkoa. Ironikoa. Berritzailea.
Laburra, baino sakona.

Beranduegi... ohiko ereduetan erortzeko.

telebista
saio
berria

Asteartero...

- » elkarriketak
- » blog irakurketa
- » erreportaje sakonak
- » aktualitatearen analisi ironikoa
- » lehiaketa barregarriak
- » ...

www.argia.com

www.beranduegi.tv

